

2001eko azaroaren 29a • XXI. urtea



**Asier Larretxearen
Zabortegiko Poemak**

03

Herri kirolarien familiakoa izan arren, letren eta poesiaren arloa aukeratu du Asier Larretxea arraioztarrak. Zabortegiko Poemak erakutsi ditu han-hemenka.



**Jabier Mindegia
gazteen txapeldun**

24

Euskal Herriko gazte mailako aizkolarien txapelketa irabazi zuen Beintza-Labaiengo Jabier Mindegia Donezteben, bere osaba Mikel omendu zuten egunean.

04 Gazteek ez dute boneta maite





Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

Larunbat arratsaldetan irekia



4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko




Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak
Altzariak



DATUAK...

• Asier Larretxea duela 19 urte jaio zen Arraiozen. Gizarte lana ikasten du Iruñean eta larunbatetan Xorroxin Irratian aritzen da. Ttikitatik gustatu zaio idaztea eta orai «Zabortegiko Poemak» izeneko olerki erakusketarekin dabil harat-honat. Elizondo, Doneztebe eta Beran erakutsi du.

• Bere lanak Hatsaren Poesia Bilduman eta uda honetan Araban egindako «Bis a bis berbetan» gartzeleki buruzko literatur bilduman argitaratu ditu, bertzeak bertze.



Asier LARRETXEA Arraiozko olerkaria

JUAN MARI ONDIKOL

ELKARRIZKETA

«Barnean nituen korapiloak askatzeko orduan idaztera jo nuen»

Aitor AROTZENA

Herri kirolarekin lotutako familia batean hazia eta olerkaria zara. Bixia ez da?

Izugarri gainera. Egia errateko, nik ere parte hartu nuen Euskal Herriko gazte mailako aizkora txapelketa batean, duela bizpahiru urte Donezteben. Aitak herri kirolarekiko afizioa sustatu nahi izan zidan, berak zekiena erakutsi, normala denez. Baina hor ikusi zen hori ez zela nere alderdi hoberena. Lehendik idazteko ohitura nuen, eta maisuek animatuta Nafarroako literatur lehiaketetara aurkezten nintzen 15-16 urtetatik aitzin. Sari batzuk ere lortu nituen. Literatura beti present izan da nire bizitzan, kirola ordea ez.

Noiztik izan duzu idazteko zaletasun hori?

Barnean nituen korapiloak askatzeko orduan idaztera jotzen nuen, hamabortz-hamasei urterako. Betidanik idatzi nahiko ilunak ziren.

Eta orain «Zabortegiko Poemak» erakusketa. Zergatik izen hori?

Jendeak poesia gutti irakurtzen delako eta azken finean zabortegia aki-

«Normalean ipuinak eta poemak idazten ditut, hortik aitzin ez naiz konplikazioetan barneratzen»

tuko dutelako eta baita, birziklaia egin dugulako. Supermerkatuko karten kartoiak markoak egin ditugu. Era berean, Miguel Sanzen azken erabakien ondorioz, agian euskaraz egiten den kultur produkzio guzia zabortegira joanen da. Lehenbiziko erakusketa Ekaitzan egin nuen eta errezital bat ere egin nuen. Jendeak erran zidan poemek horrela indar gehiago hartzen zutela. Gero Arizkunenean ere gauza bera egin nuen. Doneztebeko Kaxernan eta Berako lamotenean ere jarri ditut nere poemak. Orokorean harrera ona izan du.

Poesia leku lasai batean irakurtzeko izan ohi da. Ostatu batean ikustea ez da gauza arrunta Egia da, bai. Agian Kultur Etxeetan lasaia goa da, intimoa goa Adibidez, Berako lamotenea leku intimoa da eta gustatu zitzaidan. Hasieran Kultur Etxean egitekoa zen, baina leku

handia zen 30 poemarako, ez zen hain goxoa. Ostatu biziagoa da eta jende gehiago biltzen da. Poesia eskurago uzteko modu bat da.

Zenbait bildumatan argitaratu dituzu zure lanak. Noizko Asier Larretxearen liburua?

Burutan izaten dut amets hori, baina ez da nire helburuetako bat izan. Agian hori baino nahiago dut nire poemak errezitalen bidez edo erakusketen bidez jendearengana helaraztea. Liburua ez dago nere lehentasunen artean. Orain arte gauza xumeagoak egin ditut.

Poesiaz gain bertze literatur arloak lantzen dituzu?

Hasieran ipuinak ere idazten nituen. Poesia berantago hasi zen, ipuin horiek konprimituz eta lerro guttietan bilduz. Normalean ipuinak eta poemak idazten ditut, hortik aitzin ez naiz konplikazio handiegitan barneratzen. Zaila izanen da nire nobela bat irakurtzea. Kontua denborarena da. Denbora aunitz izan behar da, ideia bat, pertsonaiak garatu Poemak momentuan ateratzen direnez, oraingoz kontu luzeegirik ez dut idazten.



Duela 12 bat urte Goizuetan ateratako erretratoa. Eskuinean Manuel Goizueta.

Erranairuak dioen bezala zapela buruan duela ibilia da munduan barna euskalduna azken bi mendeetan. XX. mende haseran adin guzietako gizasemeen ohiko jantzia zen boneta. Mende akabailan, ordea, hirutan hogeitaretik goitikoek soilik estaltzen zuten buru kaskoa zapel beltzaren azpian. Adin horretatik beheiti, gaur egun gutti dira erabiltzen dutenak eta mende honen bukaerarako museoko tresna izanen da seguruenik zapela. Gazteek burua estali gabe ibiltzea nahiago dute eta, estaltzekotan, bixerak edo artilezko txanoak aukeratzen dituzte. Moda aldatzen ez bada, azken belaunaldia du bonetak.

ADINEKO GIZASEMEEK BAKARRIK PARATZEN DUTE

Azken belaunaldia ailegatu ote zaio euskaldunen boneta beltzari?

Aitor AROTZENA

"Mutil koxkorretan ezagutukatu dut zapel berriarekin elizara eta gero zurruera atera den jendea, muturra berotu, norbaitek zapela ixilean aldatu eta zaharrek ere etxera ailegatutakoak". Arantzako Iturtzenbordako Luis Madariagaren solas hauek erakusten dute garai batean zapelak edo bonetak izan zuen estimazioa. Gaur egun ez da halakorik. Luis Madariagak konparazio argia egin digu: "Orain bat ikusten den lekuan, gure gazte denboran bi mila zapel izanen ziren". Elbeteko Bizente Goienetxeren erranetan ere, "lehen kasik jende guziak ibiltzen zuen zapela: baserrian denek eta herrietan gehienek. Orain ere, enterramenduetan edade bateko jende gehiena zapelarekin ikusiko duzu".

Etorkizunean, gazteek ere jantziko dutela uste du Bizentek: "Lehenagokora itzuliko gara, hala pentsatzen dut". Goizuetako Txamozarrek Manuel Goizueta ere konturatzen da orain askoz gutxiago erabiltzen dela zapela, baina hain gurea izanik seguru dago ez dela inoiz desagertuko.

NEGUAN BEROTASUNA ETA UDAN ITZALA

Iturtzenbordako Luisek bakar-bakarik eliza eta ohatzean sartzerakoan kentzen du zapela, normalean. "Haize aunitz dabilenean ere kentzen dut, zapelaren gibeletik lasterka joateko adina joan baitzait. Bertez, etxean milagroak kentzen dut: nahiago dut trajerik gabe ibili, zapelik gabe ibili baino. Iruditzen zait za-

pela behar dela buruan". Iritzi bere-tsukoa da Elbeteko Bizente. "Zapelarik gabe iduritzen zait ez nagoela beztitue, zerbait falta zait ez badut buruen". Manuel Goizuetari iruditzen zaio jaio ere zapelarekin egin zela.

Izan ere, etxe barnean txapela kentzearena hagitx ohitura berria dela uste dute adituek. "Baserrian kanpoan baino gehiago behar zen zapela garai batean. Ganbaratik beti erortzen zen hautsa, zikinkeria edo belar idorra. Horregatik gizasemeek zapela jantzten zuten eta emakumeek buruko zapia" dio Antxon Agirre Sorrondo antropologoak.

Zapela erabiltzeko arrazoi onak dituzte. Madariagak dioenez, "neguan goxotasuna ematen du, aisa ibiltzen da, eta udan, berriz, itzala. Iguzkiak



RAKEL GO I

Ageri denez, zapela jartzeko modu aunitz daude, kasik buru haina.

gehiegi berotu eta hildakoak badira, nik ezagutu ditut. Haiek ere itzala izan bazuten". Manuel Goizuetari galdetzerakoan, *"talentuak ez alde egiteko"* erantzun du beti ezpainetan duen farre murrizta erakutsiz.

Burua estaltzeko ez ezik, bertze zenbait erabilera izan ditu zapelak. Leku batzuetan xaguxarrak harrapatzeko edo arraultzeak biltzeko erabiltzen zuten. *"Apuro ordu batean horretarako ere balio du"* dio Bizente Goienetxek. Aretzeak eta zekorrak errapetik kentzeko ere erabili izan da. Zapela behiaren errapera nolabait itsatsi eta aretzea, tiratu arren esnerik ateratzen ez zela somatzean, belarrean hasten zen.

1876. urtera arte eskuz egiten ziren bonetak eta orduz geroztik lantegi industrialak sortu ziren. Gaur egun lantegi horiek museo bihurtzen ari dira. Inguru honetan zapelak saltzen dituzten dendek, ordea, saltzen segitzen dute. Doneztebeko Lakar dendan erran digutenez, *"adineko jendeak zapel ona eramaten du, Olentzero garaian forrorik gabekoa saltzen da eta turistek gero eta gehiago eramaten dute. Salmentak ez du beheiti egin eta etorkizuna badu zapelak. Gazteak ere paratzen hasiko dira"*.

TAFALLAKO MIRARITIK GUDA KARLISTETARA



Lesaka 1924. Goi agintariek eta hurrek ezik, bertze guziek boneta daramate.

Boneta ikertzen urte-tan aritu den Antxon Agirre Sorondo adituaren erranetan, hagitx zaila da zapelaren jatorria zehaztea. *"Zein da danborraren jatorria? —do— gizakiak aterabidea ematen die bere premiei, edozein leku eta garaian. Bonetari dagokionez, batzuen ustez Eskoziatik ailegatu zen Euskal Herri-rra, Iparralde Ingalaterrako Erregeari lotua egon zen garaian. Akaso egia izanen da, baina alderantziz ere izaten ahal da, berdin-berdin"*. Euskal Herrian ezagutzen den zapelik zaharrena Tafallako Santa Marian gordea da. Eta miraria egin omen zuelako gordea da. Hargin bat San Sebastianen irudia egiten ari zen eta baz-

kaltzeko tenorean irudiaren gainean utzi omen zuen boneta: *"Santua bazara zaindu ezazu"* erran zion. Bazkaltzen ari zela norbait zapela ebas-ten saiatu omen zen, baina hau santuari itsatsia gelditu zen, jabea ailegatu arte. Miraria zela erabaki eta hantxe beretan gordea dago boneta.

Guda Karlistek zabaldu zuten bonetaren erabilera. Zumalakarregiren gizonek erabiltzen zuten zapelak kaskoaren funtzioa ere bete zuten: bur- nitzko edo zumezko uz- tai batekin sendotzen zi- ren, barnean artilea edo ahuntz-ilea zuten eta txar- pa batekin gogortuak zi- ren. Karlistak bonetare- kin identifikatzen zirenez, liberalek debekatu egin zuten bere erabilera,

1838an Esparterok si- natutako dekretuan. Era- baki hau lehen aldiz be- tetzen ez zutenek lauro- gei errealeko isuna or- daindu behar zuten, eta dirurik ez bazuten, bi hi- labeteko espetxealdia be- te. Bigarren aldian zigor bikoitza jasoko zuten eta hirugarren aldian, bi ur- teko gartzeleratzea. De- na den, beranduxeago li- beralek eurek erabili zu- ten boneta.

XX. mende haseran adin guzietako gizase- meek erabiltzen zuten bo- neta. Bakar-bakarrik abe- ratsenek erabiltzen zu- ten sonbreroa, herri xe- hetik bereizteko. Herriko Etxetako argazkietan ikusten da, adibidez, al- katea sonbrero elegan- tearekin eta bertze zine- gotzi guziak bonetarekin.

Bizente GOIENETXE BIDART *Elbetekoa*

Boneta ez da sekulan akituko

Noiztik jantzen duzu zapela?

Guk tiki-ttikitatik jantzi dugu, eskolara ere zapelarekin gaten ginen, pentsa ezazu! Geroztik beti ibili dut, oha- tzerakoan kendu eta altxatzerakoan segido burure! Ho- ri da kostunbrea. Nere adintsukoek, batzuk utzi zuten, baina bertze aunitzek segitu zuten. Gehixeago presu- mituko zuten zapelik gabe, doike, baina guk presumi- zen dugu gehiago zapelarekin.

Zure adinekoak joaten zaretenean zapela desagertuko dela uste duzu?

Ez da desagertuko, segituko du horrek. Gazte batzuk jartzen hasi dira eta sekula ez da akituko.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Go i. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-torena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Go i.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Euskara Osasun Zerbitzuetan



Hemen inguruan euskara ikasi nahi duten mediku-erizainek ez dute batere erreztasunik izaten, ikastaroak lruñean baitira

Maite URKIA Bortzirietako erizainen burua.

Beran, adibidez, medikuek ez dute euskaraz egiten, baina hagitz ongi ezagutzen dute jendea eta horrek ere, esperientziak, balio du. Pentsatzen dut jendea ere ez zaiola ongi irudituko medikua horregatik aldatzea. Orain, berria etortzen den bati euskaraz jakitea eskatzea, igual bai, baina denbora aunitz duzunean zure ofizioan, leku berean, jendea ezagutzen duzularik, ez da problemarik izaten. Ni etorri nintzenean eta jendeak euskaraz egiten nuela ikusten zuenean hagitz kontent jartzen zen, "Ai euskalduna, zein ongi!" erraten zuten, euskaldunak lasaiago aritzen dira. Beran jende gehienak ez du arazorik, igual haurrek problema gehiago dute beraien arazoak adierazteko. Ni ere ama naiz eta hori sumatzen dut, noski. Helduek Beran ez dute arazorik, igual Arantzan izanen dute batzuk. Orain egin behar den kanpaina hau, "Osasunak euskaraz baleki", hagitz ongi dagoela eta arrakasta izanen duela iruditzen zait. Iru ean kasu handirik eginen dioten ez dakit, baina zerbait egitea ongi dago, arazoak badela ikus dezaten. Hemen dauden mediku eta erizainak euskara ikastea eskatu dutela, eta ez diotela kasurik egin, hori ere erraten ahal dizut. Hiru hilabeteko ikastaro intentsiboa egitea eskatu dute, baina ez diote kasurik egin. Ez dagoela dirurik, ez dagoela aurrekonturik aitzaki aunitz jartzen dituzte, baina inguru honetara ez dute ikastarorik ekartzen, denak Iru ean egiten dira. Hemen bizi garenok, noski, hemen egin nahi dugu. Egunean bi orduko ikastaroa egitera Iru era joan behar izatea traba handia da. Erreztasunik ez dute batere ematen, eta orain eta guttiago. Nafarroako Gobernuak hartu dituen azken erabakien ondotik, ez dut uste honelako ikastarorik eginen denik hemen. Lehen diru gehixeago izaten zen, baina gero eta guttiago, badakizu asuntua nola dagoen!



Zure gauzak esplikatu eta medikuak «Qué dices?» hori arront pobrea da

Juliana MUTUBERRIA Zubietakoa.

Zubietan Nati Urritza dugu mediku aspaldiko urteetan. Haseran ez zen ongi moldatzen euskaraz, baina pixkanaka pixkanaka ikasten joan da eta orain majo egiten du. Adineko jendea euskaraz egitea eskatzen die eta horrela berak ere hitzak ikasten joaten da. Erdaraz hasten baldin bagara euskaraz egiteko esaten digu. Berak erdaraz ez dakienarekin aritzea nahiago du, zaharrek eta, praktikatzeko. Baina hasieran ez zen errex. Emakume zahar bat joan zitzaion behin eta bere gauzak esplikatu nahi eginahaletan eta medikuak "Qu dices?" esan zion. Hori arront pobrea zen. Herrian dauden biek ikasi egin dute eta horrela hobe. Gu gorputzeko gauzak euskaraz esatera usatuak gara eta zaila da erdaraz esplikatzeko. Ni aunitz ez dakit, baina nolabait moldatzen naiz, baina bada jendea laguntzailea behar duena. Inguru honetan mediku eta enfermera euskaldunak eskatzea oso ederki iruditzen zait. Hemen Zubietan orain euskaraz moldatzen gara, baina ez bazen hori egiten arrazoi bat izanen genuen hori eskatzen.



Profesional ona izatea eta euskaraz jakitea gutzi konpatibleak dira

Itziar ELIZAINZIN Gartzaingoa

Osasun Zerbitzuetan ari diren langileek euskaraz jakitea eta egitea aisa hobe da. Hemen inguruko jende gehiena euskalduna da eta, adibidez, adineko jendeak batez ere zailtasunak ditu erdaraz solasteko. Beraien tartean euskaraz egiten dute beti, hortara ohituak daude eta, normala denez, ez dira ongi moldatzen erdaraz. Gero, haurrek ere berdintsu pasatuko dela iruditzen zait. Niri oraindik ez zait tokatu, baina pentsatzen dut ikastetxean beti euskaraz aritzen badira eta bere lagunekin euskaraz egiten badute, medikuekin ere euskaraz aritzea aisa hobe izanen zela. Bertzenaz, gurasoek egin beharko dugu itzultzaile lana. Batzuk erraten dute hobe dela profesional ona izatea euskaraz jakitea baino. Nire irudiz biak konpatibleak dira: lehenbiziko gauza profesional ona izatea da, baina arlo guzietan. Eta arlo horietako bat euskaraz jakitea da.

Egia erran ez nuen orai egin den "Osasuna euskaraz baleki" kanpainaren berri, baina ongi iruditzen zait. Jendeak parte hartzen badu izanen du arrakasta, baina mugitu egin behar da.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Salaketa lotsamangarria

EAJ/PNVren izenean argitaratutako "Berako Berriak" buletinaren 9. zenbakian Berako Alkaterearen eta Batasuna taldearen aurkako zenbait salaketa agertu dira.

Lehenbizi eta hasteko, EAJ-kgu errudungisa agertaraztea lotsamangarri iruditu zaigu. Garzon eta bertzelakoak gure kontra jotzeko aitzaki bila dabiltzan honetan gu delinkuente gisa salatu nahi gaituenak izenik itsusiena merezi du.

Bigarrenik PNV-k Berako herria ez duela ongi ezagutzen irudi du. Izan ere zenbakituak dauden mugarrak (Berako eremuan 1etik 39ra) espainiar eta frantziar estatuei

dagozkien eta ez dira Berako eta gurekin mugatzen duten Lapurdiko herrien artekoak (Biriatu, Urru a, Azkain, Sara). Mugarrak hauek Euskal Herria bitan zatitzeko balio dute, eta bi estatuen inposaketaren ikurra dira, euskaldunen ikusmolde-tik begiratuta noski!

Euskarari ere, mese-de ttikia egin diote mugarrak horiek, aunitzen zenbakien ezartzeak parajearen izena baztertzeraren eraman gaituelarik.

Baditugu aldiz bertze mugarrak, herrien artekoak, geronek jarritakoak eta Estatuek markatutako lerro zuzenekin bat ez datozenak. Zaila baita berez, gure mendi eta erreka zoko lerro zuzenez markatzea. Ba al daki PNV-k, adibidez, 11. eta 12. zenbakien artean zenbat mugarrak dauden

eta non dauden? Eta 24. eta 25. artean?

Hori dela eta, ba al daki PNV-k estatuko zein mugarrak markatzen duen Bera eta Azkainen arteko muga? Bakarrik ere, soilik Larungo kaskuan mugatzen dutelako eta bertan ez dago zenbakidun mugarririk. Larunkaskuko mugarrak Urru a, Azkaine, Sara eta Bera elkartzaren diren puntua markatzen baitu eta hor estatuen zenbaki guztiak soberan dira.

Akautzeko erran, Alkate honek eta Berako Batasunak badakigula "gurea" eta inposatutako artean bereizten. "Gurea" errespetatzeaz gain, hainbat ohitura eta ikur berreskuratzeko lana aunitzen egin dugu (eta egingen), baita bertze batzuk defendatzeko adorerik izan ez dutena de-

fendatzeko.

Bitxia iruditu zaigu bertalde, bere burua aber-tzaletzat agertu ohi duen alderdi baten izenean, estatuen sinbologiaren aurka modu horretan salatzeari. Badirudi batzuk gaizkileak asmatzeko beharra dutela bere burua

zuritzeko edo Jauntto poteretsuen aitzinean morroi leialarena egiteko: Hitz batean: lotsamangarria.

**Josu GOIA
ETXEBERRIA**
Berako alkatea eta
Batasunkidea

OHARRA:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.
Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten iritzirik.

BEINTZAK
0
948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • 948453060

BAZTAN
FUNERARIA
TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• 948 580373 • 608 776176

PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

Ostargi
Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
¥ Lentillak
¥ Ikusmen azterketa orokorrak
¥ Begietako tentsioaren kontrola
¥ Haurrei errebisioa egiten zaie
Eta behar izanez gero
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK DITUGU
Bidasoa karrika, 8 • BERA • 948 63 07 53

PIKABEA
pinturak
Molinero drogerian
galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • 948 630240 - 948 631495 • BERA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Noticias, 01eko azaroaren 17a

'Aurten hamar behi gorri ekarri ditugu eta 12,30etarako borts saldu ditugu. Prezioa 150.000 eta 200.000 pezeta artekoa da. Aurten iaz baino zaldi guttiago daude, baina behi eta aretzeak berdintsu. Behi pintto gutixko ikusi dut'.

Andoni MENDIBURU
Doneztebeko tratantea
D. Noticias 01-11-17

'1980. urtean aseguru etxe batek ur-bonba eman zion Lesakako Herriko Etxeari. Orduan borts lagun arduratzen ginen bonba hori mantentzeaz, herrian suerta zitezkeen sute ttikietan erabiltzeko. 1983an batzarra egin


zen eta boluntario kopurua handitu zen () Gaur egun hiru ibilgailu eta parke ekipatua eta modernoa ditugu'.

Marcos MARITXALAR
Lesakako su-hiltzailea
D. Noticias 01-11-19

'Historia garaileek idatzi dute eta berdin zait nafarrak edo gipuzkoarrak izatea. Haiek idatzi dute historia eta guk egin behar dugu gurea, garailearen begietatik ikusi gabe egin behar dugu hori. Kontatu diguten historia gezurrez beteta dago'.

Pedro ESARTE
Elizondoko historialaria
Nabarra 01-11

• 11 GALDERA LABUR •



Juanen SARAILEGI Lesakako antzezle eta kirolaria

¿Juan Enrique, Jon Endika edo Juanen?

Lagunentzako Juanen.

¿Aktore profesionala izatea gustatuko litzaizuke?

Barnetik nola den ezagutu beharko nuke, baina baietz iruditzen zait.

¿Zer prestatzen da errexago, Behobia-Donostia lasterketa edo 'Zugarramurdiko Sorginak' antzezlanak?

Behobia-Donostia, dudarik gabe.

¿'Trizikloa' rekin Bilboko Kafe Antzokira ailetu zineten. Antzezlan berriarekin?

Berriz ere leku berera ailegatzen bagara ez da gaizki egonen.

¿Futbolearen ere aritu zara. Area barnean antzerkia egiten zenuen?

Ez nintzen areara ailegatzen.

¿Izanen du noizbait antzerkiak fut-

bolaren ikusle kopurua?

Ez zait iruditzen, zaila izanen da.

¿15 urte inguru jokatu dituzu Beti Gazten. Zer eman dizu futbolak?

Batez ere lagunak pilaka.

¿Eta orain utzi duzula, nola sentitzen zara ikusle gisara?

Urduri, super-urduri.

¿Futbolari baten eta antzezle baten izenak?

Joxe Mari Bakero eta Jack Nicholson.

¿Feriak, I auteriak edo Sanferminak?

Herriko bestak, ongi pasatzeko egun gehiago direlako.

¿Feria egunerako plana?

Goizean buelta bat eman zer dagoen ikusiz, bazkari ederra egin eta gero poteoa, ahal den arte.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berrietea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE
ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

948 631462
Altzate 1 • BERA

Xirgil

TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Kanttonberri, 3 - beheko Telf. 627 44 30 12 - 948 631575 • BERA

Marisko eta arrain enkarguak
hartzen ditugu Eguberrietarako
Besta zoriontsuak eta Urte berri on!

KAXULA

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA
948 63 75 58

OSASUNA

Osasun zerbitzuetan euskara normaltzeko eskaria Gobernuari


“Osasunak euskaraz baleki! Ziurtatu euskararen osasuna” kanpaina abian da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuari osasun zerbitzuetan euskararen normalizazioa bideratzeko plana martxan jar dezan eskatuko dion “Osasunak euskaraz baleki! Ziurtatu euskararen osasuna” kanpaina abian jarri da.

Kanpainaren antolatzailerak UEMA, LAB eta ELA sindikatuak eta OEE dira eta horiek Hego Euskal Herrian kanpaina egiteaz arduratuko dira. Gure eskualdearen kasuan, horiek ez ezik Euskara Zerbitzuak kanpaina Bortzirietan, Baztanen, Malerrekan eta Leitzaldean egiteaz arduratuko dira.

Osasun alorrean euskarari sarbidea emateko eskaera behin eta berriz egin dute udalek, elkarteek eta bertzelako erakundeek. Oraingoan, horiek ere eskaera hori egiten jarraituko badute ere, kanpainaren ardatza herritarak, hau da, osasun zerbitzuen erabiltzaileak



Honelako postalak helaraziko zaizkio Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariari.

izanen dira, nagusiki. Kanpainari hasiera emateko eta aurkezpen modura, joan den azaroaren 20an Donostian prentsaurrekoa egin zen. Egun horretatik aitzinera herri eta es-

kualde bakoitzean Eguerriak arte iraunen duen kanpaina hau modu ezberdinean lantzen hasi dira.

Euskarri nagusia postala da eta horren bidez, herritar bakoitzak

Osasunbideko ardura-dunei aipatutako eskaera eginen dio. Bakoitzak bere izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia jarri behar ditu eta horrez gain, sinatu.

POSTALAK SANTIAGO
CERVERA KONTSEILARIARI

Postala biltzeko modu ezberdina izanen da herri bakoitzean. Toki batzuetan (ostatueta, ikastetxeetan, osasun zentroetan...) buzoi berezi batzuk jarriko dira, datuak bete ondoren postalak horietan sartzeko eta bertze zenbait tokitan, Euskara batzordeetako kideak arduratuko dira postalak banatzeaz eta biltzeaz. Beraz, interesa duten guztiek erne egon beharko dute, bere herrian postala noiz eta nola banatuko den jakiteko.

Nafarroan bildutako postal guztiak Osasunbideko Kontseilariaren Santiago Cerverari helaraziko zaizkio, kanpainaren bukaeran.

KULTURA

Bidasoaldeko XV. Bertso paper lehiaketa zabalik

ttipi-ttapa

Abenduaren 14a arte zabalik dago Gure Txokoa elkarteak eta Bortzirietako Bertso Eskolak antolatutako Bidasoako XV. Bertso paper lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketa hau Baztan-Bidasoa inguruan bizi diren guzientzat zabalik dago eta lau mailatan banatu da. A mailan, 12 urte artekoek hartzen ahal dute parte eta guttienez bi bertso edo lau koplak egin beharko dituzte. B mailan 12-16 urtekoek parte hartzen ahal dute eta guttienez 4 bertso egin behar dituzte. C mailan 16-20 urtekoak ariko dira eta sei bertso egin behar dituzte guttienez. D maila 20 urtetik goitikoei zuzendua dago eta 8 bertso egin beharko dituzte guttienez. Lanak Gure Txokoa elkartera (Ez-tegara Pasealekua 17, 31780 Bera) bidali behar dira.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



ZUBIONDO

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA



belardenda

**Mediku naturista
kontsulta**

Masajista

Legia 1, behea • BERA • ☎ 948 630652



Ioredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

BERA

Euskal presoen sakabanaketari akabera emateko eskatu du Udalak

Espainia eta Frantziako lehendakariei erabakiaren berri emanen zaie

Asier GOGORTZA

Urriaren 25ean Bata-suna taldeak aurkeztu-tako euskal preso-en sa-kabanaketaren kontra-ko mozioa gehiengoz onartu zuen Udalbatzak. Batasunako 4 zinegotzi-ek aldeko botoa eman zuten, EAko Jose L. Igoa eta EAJ/PNVko Javier Iturria abstenuitu egin zi-ren eta EAko Javier Lei-za eta Jose R. Martinek aurkako botoa eman zu-ten. Azken hauek, dis-pertsio politikaren aur-ka egonik ere, mozioan gauza orokorrak falta zi-rela adierazi zuten ber-ren ezezko botoa argu-diatzeko.

Udalak, beraz, Europako parlamentuaren eta instantzia judizialen aurrean dispertsioaren salaketa egiteko konpromisoa hartzen du onartutako mozio honen bidez.



AITOR AROTZENA

Alkaia industrialdeko Hidro Rubber fabrikako langileek grebara jo zuten joan den astean lan-baldintza hobekuntza eskatzeko. Batez ere Irun, Bera eta Le-sakako langileak dituen lantegi hau produktu kimikoekin ari da lanean. Hain zuzen ere, kimikaren sektoreak Estatuko konbenio du, baina langileen eta sindikatuen ustez Euskal autonomi erkidegoko eta Nafarroako bizi mai-larako nahikoa ez dena. Gainera, osasun arloan ere hobekuntzak eskatu di-tuzte. Hori dela eta langileek enpresako akordio batera iritsi nahi dute zu-zendariarik, lan baldintza duinagoak lortzeko. Joan den asteko astelehene-an hasi eta greba mugagabea eginen omen dute.

FLASH

Hurtzaindegia eta kiroldegia

Azkeneko ttipi-ttapan aipatzen genuen bertzeak bertze bi obra hauek ezin aitzinera ateriz ari zela Udala. Geroztik ikasi dugunez, ordean, bi lan hoiek egiteko gonbidapena luzatu zaie zenbait enpresari, eta Udaleko iturriek erran digutenez litekeena da urtea akautu aitzinetik lanak martxan jartzea.

**Gazteentzat kirol
uqari kiroldegian**

Lehen hiruhilabete honetan saskibaloian lehiatuko dira kirolzale gazteak, 3x3 txapelketa batean. Joan den larunbatean hasi zen, eta benjamin eta alebin kategorietako 7 talde ari dira denetara. Hurrengo hiruhilabeteetan eskubaloian eta areto-futbolearen jostatzeko aukera izanen dute Bera eta Lesakako neska-mutikoei. Infantil adinekoak areto-futbola eta atletismoa ikasiko dute.

**Ingurugiroaren
gida aurkeztuko
dute abenduan**

Abenduaren 1ean Berako ingurugiroaren gida aurkeztuko dute ibilbide gidatu baten bidez. Illekuetako errotatik abiatuko dira goizeko 10,30etan eta gidak proposatzen duen ibilbidean barna itzulia egingen dute egileek, parte hartu nahi duten guzietan. 2 orduz ibiliko dira eta ibilbidean gida honi buruzko hainbat azalpen emanen dituzte.

ELIZAKO ORGANOA

***Interes kulturalen ondareak
izendatu nahi dute elizako organoa***

Nafarroako Gobernuak Berako San Esteban parrokiari dagoen organoa interes kultureko ondasun bihurtu

tzeko espedientea ire-
kiko du. Honi esker, adi-
tuen ustez Nafarroako
organo erromantiko ho-
berena den honek ins-

tituzioen babesa izanen du. 1895ekoa da hiru teklatuko organo hau, eta Amezua eta Jauregi artisauek egina da, kontratu berexi batekin gainera. Izan ere, garai hartako organo gehienak

Frantziatik ekarriak izaten ziren, eta beraiek hitza eman zuten haiek baino organo hobea eginen zutela, gainerakotan beraien esku joanen zela frantsesa paratzea. Baita bete ere.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA


ZALAIN
 JATEIXLA
 948631106
 948 630967
 Zalain • BERA
Urte akabailako enpresa bazkarietarako
MENU BEREZIAK prestatzen dira

bortziRUDI
BERA
 ELLIYKIDIAK (1991-1994) 1994-1995
 ENKUAERNAZIOAK
 PLASIDIKAGUAK
 IANA, IEMILA
 SEANNIRIA
 PAMOTHEKA
 (1991-1994) 1994-1995
 (1991-1994) 1994-1995
 (1991-1994) 1994-1995
 DISINI GENUKIA
 IMPINTA IANAK
 ARUKAFIA
 (1991-1994) 1994-1995
 (1991-1994) 1994-1995
 (1991-1994) 1994-1995
Estetara 26 beheh
Tel.-Fax: 948 63 15 21

LESAKA

Salbatoreko ermita abenduarien 2an zabalduko da berriz ere

Bi urtez moldaketa lanetan aritu
da erretiratu taldea

Aitor AROTZENA

Aspaldiko urteetan itxia egon ondotik, igande honetan, abenduaren 2an, berriz ere meza adituko da Salbatoreko basilizan. Goizeko 11,30etan hasiko den meza Maximo Hernandorena apezaren omeneginen da. Bera izan zen Salbatore moldatzeko bultzada eman zuena eta bere arrimotan, herriar talde bat lanean hasi zen 1999ko abuztuan. Orduan teilatua berritzen hasi ziren, baina beharrezko baimen guziak ez zituenez, Herriko Etxeak lana geldiarazi zuen. Gero, Herriko Etxearen

eta Bianako Printzearen oniritziarekin eta erakunde honetako Leopoldo Gil arkitekturen gidaritzapean berriz ere lanean hasi ziren 1999ko San Martinegunean. Erretiratu taldea paretak pikatzen eta txukuntzen aritu zen, baina Maximo Hernandorenaren heriotzak, 2000. urteko apirilaren 19an, berriz ere geldiarazi zituen lanak.

Alfonso Gartziandia apez berriak ekin zion berriz lanei, joan den urte akabailan. Gehien bat herriko erretiratuek egin dute moldaketa lana. Herriko Etxeak ere dirulaguntza eman du, ko-



ro berria egin eta zola moldatzeko, baina eskulan gehiena jubilatuek egin dute: aldarea eta erretaula berritu, aulkiak paratu, Via Crucis-a zaharberritu Baselizak hiru erretaula zituen. Bitikienak kendu egin dituzte eta beraien ordez irudiak paratu dituzte. Erretaula nagusia, berriz, zaharberritu eta zoragarri utzi dute. Azken bi urteetako argazkiak ere ikusgai izanen dira igandean Salbatoren.



ALFONSO OBESOK UTZIAK

Honelako itxura zuen Salbatoreko basilizak kanpotik eta barnetik moldaketa lanetan hasi zirenean. Bi urte luzeko lanaren ondotik, igande honetan izanen da ermita berritua ikusteko modua.

OMENALDIA

Altzafero eta Lastol gogoratu zituzten Agi an su-hiltzaileek

Herriko su-hiltzaile boluntarioak Agi an bildu ziren azaroaren 18an, aurten hildako lan-kideei omenaldia eskaini asmoz. Bonberoekin batera, Fran Etxeberria eta Javier Moral koordinatzaileak eta Jose Luis Etxegarai alkatea izan ziren Agi an. Jose Ma-

ri Igoa 'Lastol' eta Javier Sadaba 'Altzafero' gogoratu zituzten ekitaldian. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuako helikopteroa ere Agi araino joan zen eta su-hiltzaileek lur hartzean zer egin behar den jakiteko ikastaro azkarra egin zuten.



LEGARRA

Larrialdietan helikopteroaren laguntza izanen du te abudo herriko su-hiltzaileek.

FLASH

Takolo, Pirritx eta Porrotx

Pailazoaren emanaldia izanen da igande honetan, abenduak 2, arratsaldeko 5etatik aitzinera udal pilotalekuan. Takolo, Pirritx eta Porrotxek, 'Aupa Kintxo!' Nikaragua laguntzera bideratua dagoen emanaldi berria eskainiko dute. Otxogorriena Guraso Elkarteak antolatua du emanaldia.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

Usategien historian izan den uso sasoirik txarrena izan da aurten

Denetara 40 dozena bakarrik hartu dituzte denboraldi guzian

Joseba eta Nerea

Urriaren 1ean hasi zen uso-denbora dagoeneko akautu da eta inoiz izandako tenporarik txarrena izan da sareetan hartutako usokopuruari dagokionez. Patxi Elizalde usategietan 13 urte daramatzen usazaleak aipatu digunez "iaz lehendabiziko bi astetan 60 dozena hartuak genituen eta aurtengoan sasoi guzian 40 dozenarekin gelditu gara. Azaroan hagitz eguraldi txarra egin du eta txabola barrenean ordu gehiago pasatu ditugu kanpoan baino. Balorazio hagitz txarra, dudarik gabe".

Dena den, urtero bezala uso-denbora akautzearekin batera Etxalako usazaleak Iparraldekoekin elkartuko dira. Abenduaren 1ean, larunbata, Lannen (Bernen) bazkaria izanen dute. Ondotik uso-tenporadaren balantzea eta bildutako usoen araberrako klasifikazioa egiten dute.



ARTXIBOKOA

Aurten ez da honelako irudirik, Usategietan bildutako usoekin bederen.

EHNA

Urriaren 28an Etxalaren ENaren (Euskal Nortasun Agiria) eguna ospatu zen, Nafarroan ENaren aldeko mozioa onartu zuen lehenbiziko herria izan zelaren aitzakian. Bide horretatik segituz, Udalak onartu berri du Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitzeko aukera. Informazioa etxetara ailegatzeko ari da eta interesatuak udal-txean eskaria egiten ahal dute.

Kultur etxeko web gunea Jabier Iriartek

Kultur etxeko proiektuaren barrenean teknologia-puntu bat egin nahi da eta honen barrenean Etxalarko Web-orria sortzeko intentzioz udalak langile bat kontratatu du. Bi izan ziren eskaintza aurkeztu zutenak eta Udalaren ustez onena Jabier Iriarte Sansi enak aurkeztu zuen. Hurrengo 7 hilabetetan web-orria sortzeaz arduratuko da.

Auzoetako mapen panelak

Duela 2 urte herriko auzo gehien sarrereetan bertako mapa azaltzen zuten panelak paratu zituen Euskara Batzordeak. Orduan paratu gabe gelditu ziren panelak jarri dituzte orain: Lurritziederra auzokoa Larralde azpian, Urritzokieta auzokoa ermitako sarreran eta herrikoa Mainea parean, aparkalekuaren azpian. Lehen goek zizutzen akatsak ere moldatu dituzte.



PERTSONAIA

Itziar IRIARTE

'Jendeak ez dit arazorik jarri INE-rako datuak emateko'

Itziar Iriarte Sansi ena 20 urteko herritarra INE-rako datuak biltzen ari da etxez-etxe. Dagoeneko zuetako zenbaitzuen etxeetatik pasatu izanen da eta oraindik agertu ez bada egunotako batean ate-joka izanen duzue.

Zein da zehazki egiten duzun lana?

Zentsorako datuak bildu: etxebizitzarenak, 16 urtetik goitikoak eta eroldarenak.

Nolakoa izaten ari da jendearen harrera?

Orokorrean hagitz ona, momentuz ez dut arazorik izan jendeak ongi hartu naudelako beti.

Nolako esperientzia da horrelako lan bat?

Pentsatzen nuena baino lan gehiago du baina esperientzia gisa hagitz aberasgarria da: jendea ezagutuz, baserriak bisitatuz...

948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

ETXALAR

IGANTZI

Herria ezagutuz

Heldu den aste gehiena hartuko dute Udazkeneko Kultur Egunek

Laguntzaileak biltzeko kanpaina hasi du Igantziko Pilota Taldeak

Oskar TXOPERENA

Hauxe duzue abenduaren 5etik 9ra arte Kultur Egunen barreraren Igantzin izanen diren ekitaldiak:

¥ Abenduaren 5ean, 19:30etan, Erretorbaitan (Zentroan): Pello Zabalen solasaldia (Euskal Herriko eguraldia eta tenporak)

¥ Abenduaren 6an, 19:30etan, Erretorbaitan (Zentroan): Askagintza taldearen solasaldia (Drogak eta gazteak)

¥ Abenduaren 7an, 15:00etan, pilotalekuan: Haurrentzako jokoak eta berendua.

¥ Abenduaren 8an, 11:00tan hasita eta egun guzian, Zahar Etxean: Argazki zaharren erakusketa eta 20:00etan Opil jatea Biltokin.

¥ Abenduaren 9an, 16:00etan, frontoian: haurrentzako tailerrak Auskalo taldearekin, eta 19:30etan antzerkia Zahar Etxean, Ramon Agirre eta Joserra Senperenarekin: "Ondo esan beharko".



OLAETXEAKO EK UTZITAKO ARGAZKIA

Herrian pilotan ari diren haurren gurasoek eta taldearen arduradunek lanari nolabaiteko seriotasuna emateko erabakia hartu zuten, orain dela aste pare bat Biltokin egindako bileran. Orain arte egindakoarekin segitzeaz gain, bertze zenbait ekimen ere bultzatu nahi dira, baina, horretarako baliabideak behar omen. Herrikoetxearena da momentuz taldeak hartzen duen laguntza bakarra, eta, beharrak ikusita, urtero 3.000 pezeta (18 euro) emanen duten laguntzaileen bila hasi dira. Horretarako izena emateko orriak banatu zaizkie guraso guziei. Bertzalde, Belate Elkartek antolatzen duen Bidasaldeko Txapelketa dago jokoan -abudo jokatuko dira finalak- eta 14 dira parte hartzen ari diren herriko pilotariak.

Zahar Etxeko txapelketak

Urtero tenore honekin jokatzeko dituzte Baratzondo Elkartekoek mus eta partxis txapelketak. Boladatxo bat daramate larunbat arrats eta igande arratsaldean elkartzen eta aste

honetan berean jokatu-ko dira finalak, larunbatean musekoa eta igande arratsaldean partixekoa. Sari banaketa, berriz, heldu den astean izanen da, abenduaren 5ean egin gogo duten bazkariaren ondotik.

Bertzalde, azaroaren 22an Gipuzkoako Zetaren herriko museoa, eliza eta bertze zenbait lekuk bisitatzeko bidaia egin eta itzultzerakoan sagardotegi batean bazkaldu zutela jakin dugu. Ez dira geldirik egotekoak, bistan da.

Juanjeronimoren borda

Frain mendira errepi-dez joaterakoan Juanjeronimoren borda izanen da ikusiko dugun igantziko azken baserria. Berrizunera ino doan Ganboko erreko iturburuaren ondo-ondoan dago, Frain mendiaren magalean. 1786an eskatu zion Beheko Uhaldeko Juan Bautista Semperrek Herrikoetxeari lur eremu bat Frain aldean, geroago baserria eraiki eta luberria ateratzeko erabiliiko zena, seguerenik. Baserriari buruz aurkitutako dokumentaziorik zaharrena 1843koa da eta haseran —oraindik zenbait dokumentutan ere— Uhaldeko borda deitu bazitzaion ere, bere lehendabiziko jabe edo biztanleak, Juan Geronimo Semperrek —izen bereko bertze baseritik bereizteko seguraski— eman zion gaur egun erabiltzen dugun izena: Juanjeronimoren borda. Halere, baserri-izen gutti izanen dira honek adina aldaketa ezagutu dutenak: Hualdecoborda, Juanjeronimoborda, Juanangeleborda, Juanjoren borda, Juanjeleborda eta bertze aldaera anitz dago dokumentatua. Orain Juanjelen borda erabiltzen dugu.

ATM S.A.


AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZUN S.L.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxe: 948 637508

Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua ☎ 948630155



ARANTZA

Udal zerbitzuetan euskararen erabilera normaltzeko plana onartu du Herriko Etxeak

UEMAK berriki eman du udal-egitasmo honen berri

Nerea ALTZURI

UEMAK udaletan gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko planaren berri eman du berriki. Udalak baiezkua eman dio egitasmo horri, euskara indartu, bulkatu eta gehitzeko hondar urteotan egin duen lan haundiari segida emateko. Herriarrek nahiz bertze administrazioekin barreneko nahiz kanpoko hartue manak euskaldundu behar direla defendatzen du Udalak plan honen bitartez, beti ere, euskaraz ez dakiten herriarren eskubideak errespetatuz.

Udalaren zerbitzuak euskaraz bideratzeko egin den lanean, landu gabeko zenbait eginbehar aintzineratzen eramanen dira plan honen bi-



ARTXIBOKOA

Herriko etxeko teilatua moldatzeko intentzioa du Udalak.

tartez. Beraz, ez da baxterez zaila: herriarrek etxean, karrikan, ostatuan, dendan euskaraz aritzen garen moduan, udalera zuzendutako idatzian edo bertara jotzean, ahoz eman

beharreko azalpenaren ere berdina jokatu behar dugu.

Udaletxeko lan eta ordutegiak

Herriko Etxeko ordutegia goizeko 9etatik

2ak arte murriztu da. As-telehenetik ortzilerara ordu horietan telefono deiak hartuko dira eta bertaraten den jende-ari erantzuten zaio. Nolabait, langileek bertze udal aferetarako den-

bora gehiago izatea nahi da erabaki honekin.

Bertzalde, kanposantua haunditzeko eta herriko etxeko teilatua moldatzeko lanak lehiaketara ateri ditu Udalak. Azaroaren 30ean akautzen da eskaerak aurkezteko epea eta deialdi berexia egin die Udalak eskualdeko enpresei.

Azkenik, azken urteetan bezalaxe, herriko etxeko bulegoak, eskola eta mediku kontsulta garbitzeko lanpostua ere lehiaketara ateri du udalak. Izen emateko epea abenduaren 14ean akautzen da. Rosarito Agestak garbitzen ditu orain udal eraikinak.

Bi haur bataiatu zituzten

Azaroaren 18an, aurtun jaioetako bi haur bataiatu ziren. Aimar Zubietta Larretxea eta Julen De la Loma Bergara udan sorturiko bi mutikoak ditugu, momentuz, herriko gazteenak.



Terraza eta plater konbinatuak

EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 • (948) 627547 **LESAKA**

SAROBEOkindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - **LESAKA**

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ✶ Langile Autonomoak
- ✶ Nekazariak eta mendi-langileak
- ✶ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✶ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✶ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✶ Diru-laguntza ezberdinak
- ✶ Kontabilitateak
- ✶ IVA eta IRPF
- ✶ Errenta aitortpenak
- ✶ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ✶ Bideragarritasun planak

Alberto RETEGI abokatua

Altzate 17

BERA

948 630 763

DONEZTEBE

Arkupeak elkar-tearen urte akabailako besta abenduaren 13an

Abenduaren 15ean, berriz, Euskal Kantu txapelketaren finala izanen da

ttipi-ttapa

Urteroko ohiturari eutsiz, Arkupeak erretiratuen elkar-teak, Nafarroako Kutxaren laguntzaz egiten duen urte akabailako besta Donezteben egingen da aurten ere. Abenduaren 13an, eguerdian, hildako bazkideen aldeko meza izanen da elizan. Txomin Garmendia eta Bittor Elizagoien bertsolariak ere bertan izanen dira. Felipe Ganboa lehendakariak urteko ekitaldiak aztertu eta heldu den urterako prestatu den egitarauaren berri emanen du. Agintariaren solasen ondotik, bazkaria izanen da Bordatxon, Argetasko Moderno jatetxeak emana. Fritoak, otarrainskak, arrain zopa, umerria ensaladarekin, pastel txikiak, txanpaina, ardoa, kafea eta edariak izanen dituzte menua. Bazkalondoan dantzaldia izanen da eta zozketa egingen da. Autobusak bueltan arratseko 7,30etan abiatuko dira.



ARTXIBOKOA

Aurtengoan Santa Luzia egunean bilduko dira Bordatxon Arkupeak jubilatuen elkarteko kideak, urte akabailako besta ospatzera.

IV. Bertso paper eta ipuin lehiaketa

Azaroaren 30ean akituko da Malerreka Euskara Zerbitzuak lagarren aldiz antolatutako ipuin eta bertso-paper lehiaketan lanak aurkezteko epea. Epaimahaiaren erabakiaren ondotik, abenduaren 12an egingen da sari banaketa Doneztebeko esko-

lan eta txokolatea ere banatuko da. Hurrengo TTIPI-TTAPAN argitaratuko dira saritutako lanak.

Santa Luzia Eguna

Azkeneko urteotako ohiturari eutsiz, Santa Luzia eguna ospatuko da abenduaren 13an. Artisauak izanen dira eliz atarian, Santa Luziako meza egingen da-

goizeko 11etan. Jostunen egunean, Mari Carmen Elizalde omenduko dute eta bertsolariak izanen dira. Arratsaldean haurrendako antzerkia izanen da.

Osasunbidean euskaraz

Aldizkariarekin jaso duzuen postala bete eta Mankomunidadera, eraman faborez.

EZKURRA

Berriz pinua sartuko da Zaibide inguruan

Peio ZESTAU

Duela sei bat urte, saneamendu lanen gastua ordaintzeko pinua ateratu zen Zaibide inguruan. Orain, inguru horretan berriz ere pinuak landatzeko, eremua garbitu eta itxi, eta pistak moldatzeko proiektua egin du Udalak. Aurrekontu handi samarra duenez, 12 milioi ingurukoa, puskaka egitea erabaki du Udalak. Orain itxi eta landatu egingo dute bakarrik, 3.500.000 pezetako aurrekontuarekin. Lanak enkantera ateratu eta bi enpresa aurkeztu ziren. Eskaintzarik onena Oiartzungo Berdabio Basogintza enpresak egin zuen, 2.615.000 pezetaren truke egingen baitu lana. Urtea bukatu baino lehen hasiko dira.

Etxe berria

Aspaldi ez zen etxerik egin herrian, baina Txomingo inguruan, etxe zoragarria egin du Toki-Alaiko Martin Telletxeak.

616 513 497
Pititi
ESKABAZIOAK
C/Amelia
31740 DONEZTEBE (NAPARRA)



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



GOIZUETA

Arau subsidiarioak berrikusiko dira

Barrenetxeko Idoia Legarreta dago lan hau eginen duen arkitektu taldean

Esteban AROTZENA

Orain dela hamaika urte egindako arau subsidiarioek berrikuntza behar zutelakoan zeuden Herriko Etxean eta horretarako dirulaguntza eskatu ere egin zioten udaberrian Nafarroako Gobernuari. 7,5 milioi pezetako aurrekontu batean 4 milioi ematen zituela erantzun zuen honek, eta hurrengo pausoa lehiaketa deialdia prentsan argitaratzea izan zen. Bi eskaintza jaso zituen deialdi honek: bat, gaur egun indarrean dauden arauak egiteaz gain, hirigintza gaietan Udala-

ren aholkulari den Jose Ignacio Arribas-en taldearena. Bestea, berriz, Rufino Brugerarena. Honen taldeko arkitektu bat, Barrenetxeko Idoia Legarreta da. Eskaintza ekonomikoa berdina zenez (7.830.000 pezetakoa) bi teknikok, hiru boikalek, alkateak eta idazkariak osatzen zuten epaimahaia arrazoi teknikoetan oinarritu zen arauak berritzearen lana Rufino Brugerari emateko. Baldintzak zuzen betetzen baldin bada, hemendik bost hilabetera prest edukiko du Brugeraren taldeak errebisioaren aurre-



ARTXIBOKOA

Hemendik bost hilabetera prest egonen da Arau Subsidiarioen aurreproiektua.

proiektua, Udalak aurreonarpenera eman diezaion. Honi alegazioak aurkezteko, hilabeteko epea izanen da, eta ondoren hilabete terdikoa hauei erantzuteko.

Aisialdi tailerra

Eguberrietako Goizueta eta Aranoko Udal Euskara Zerbitzuak haurrentzako antolatutako aisialdi tailerrentzako hi-

ru begirale behar dira. Abenduaren 3tik 14ra bitarteko epea da izenak emateko eta nahi den hainbeste informazio emanen dute 948 510814 telefono zenbakian.

Boluntario taldea handitu da deialdiaren ondotik

Anbulantziaren bolun-

tarioen taldea handitzeko TTIPI-TTAPA aldizkaria erabiliz egin zen deialdiak erantzun ederra jaso baldin badu ere, jende gehiagorentzat lekua ba omen da oraindik taldean.

Ikastaroa hastear dagoenez, izena emateko asmoa duenak berehala jo beharko du Herriko Etxera eta ongietorria izanen da.

ARESO

Bi bide berritzeko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Egur loteak zozketatu dira

Juana Mari SAIZAR

Bi obretarako urgentziatzeko kontratazioa egin behar du Udalak. Napoleon Bidea eta bainuetara doan pista, eta Garrapaldako bidea zolaberritzeko %60ko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak Turismo Departamenduak. Obra hauen kostua 8 mi-

lioni pezetakoa da eta abenduaren 31 baino lehen obrak bukatuak egon behar dute derri gorrez.

Egur loteak

Aurten Guratz parajea egur loteak marikatu dituzte. Azaroaren 15ean zozketatu ziren loteak, baina oraindik



lpar Doinua abesbatzaren emanaldia 14 abestiz osatua zegoen, hauetatik 9 euskaldunak. Elizan ez ziren kabitzen beraien ahots ederrak. Entzulegoa gustora, gehiegi ez bazen ere.

udaletxetik pasa daiteke zenbakia hartzera.

Aisialdi tailerra

Euskara Zerbitzuak Eguberrietako Aisialdi-rako tailerrak antolatuko bi begirale behar ditu. Programazioak abenduaren 3tik 14ra

aurkeztu beharko dira Euskara Zerbitzuan.

Zergak

Zabor, ur, kontribuzio eta ibilgailuen gaineko zergen errezibotak pasatzen ari dira. Urtea bukatu baino lehen ordaindu beharko da.

ARANO


Larunbatean bertso afaria San Roken

Kontxi KLABER

Abenduaren 1ean Udal Euskara Zerbitzuak antolatuta, San Roke Elkartearen bertso afaria izanen da Maialen Lujanbio eta Andoni Ega arekin. Bestalde, Udalak Tintapolon 16 Hektarea landatzeko proiektua egin zuen. Joan zen urtean 11 Ha. landatu ziren bertako landareekin. Orain bigarren faseko garbiketak egiten ari dira dagoeneko. 5 Ha. tan pinua sartuko da.

Baztanen izan zuen arrakastarik handiena

Beraz, orokorrean egun arrakastatsua izan zela erraten ahal da. Denaren, datozen urtetarako zenbait aldaketa proposatuko dituzte Aizkolegikoek. Honela, eguna iraila aldera aitzintzea pentsatzen dute, eguraldi hobea izateaz gain, erreka ur guttiagorekin heldu baita.



Zur z tʒ k f ɛ x k ɛ r k h r m

ENTSELNK

Et r n, n u r n
31 t r t, s k u l k
r r m n n
u z u z u r l n
k n t r C t z r k n.



www.e-nr.lc.pl/v.10

G r r u t z t s u
z u z r

NAFARR AK
RUR L KUTXA

LEITZA

«Erleta» da eskolaren izen berria

Gurasoek izan dute hiru izenen artean erabakitze aukera

Mikel ILLARREGI

Orain gutun bat izen-petzerakoan edota eskolara gutun bat bidali nahi bada ez da beharrezkoa izanen "Leitzako Haur eta Lehen Hezikuntzako eskola" idaztea, Erleta eskola jarztearekin aski izanen da. Irakaslegoak aspalditik izena aldatu nahi zuen, baina zein? Eta, nola aukeratu? Udaletxeko kide batzuekin harremanetan jarri eta onartutako toponimia zerrendari kasu eginez, hiru izen aukeratu zituzten: Erleta, Larbadi eta Izpe. Ondoren gurasoei eman zaie erabakitze aukera. Guztira 133 familia dira eta gehiengo batek lehenbizikoa egokitzen hartu du. Eskola bera, Amazabal parajearen dago baina Erleta oso hurbil dago. Lehen pausoa emana da.

na da. Orain, behar bezalako tramitazioa egin beharra dago.

Eskolak bere garaian, 1969an, Jose Mari Sagastibeltza alkate eta Juanita Erbiti Treku zuzendari zirelarik. "Queipo de Llano" izena izan zuen 6-7 urtez. Pertsonai hau, garai hartako Nafarroako Gobernadore Zibila izan zen. Orduz geroztik, emandako pausoa gauzatzen hasi arte "izen gabe" mantendu da herriko eskola.

Euskararen dekretuari helegite berria

Nafarroako Gobernuak onartutako dekretuaren aurrean, Euskarara Mankomunitateak, helegitea eta errekurtsioa aurkeztu du.

Dekretu honen arabera, euskara jakin be-



MIKEL ILLARREGI

Urte batzuk izenik gabe eman ondotik, hemendik aurrera Erleta deituko zaio eskolari.

har den lanpostuen kopurua murriztu egiten da, 13.000 langileko plantillatik 149 soilik izanen dira elebidun. Lehen 234 ziren.

Haize energia parkeari alegazioak

Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Haize Energiaren Lurralde Plangintzak, Mandoegi aldean, haize energia sortzeko azpiegitura ba-

ten instalazioa aurrikusten du. Bertan, 39 haize errota jarriko lirarteke ia 8 km.ko luzeran. Aurrekontua 3.861 milioia da. Gaiak duen garrantziaz jabeturik eta gure herriari sortzen ahal dizkion ondorioak kontuan hartuz, nekazari talde, sindikatu eta beste zenbait udalekin bat egin du Leitzakoak, eta alegazioak aurkezteko epea beste 90 egunez luzatzea eskatu du.

FLASH

Saharar herriari laguntza

Herri honek jasaten duen "egoera gogorra leuntzeko asmoz", kanpamentuetara elikagaiak bidaltzeko kanpainarekin bat egitea onartu du Udalak. Honekin batera aurtengo aurrekontuetan 200.000 pezetako dirulaguntza ematea eta, era berean, herritar eta elkarteiei dei egin die udalak kanpaina honetan lagun dezaten.

Haur Aisialdirako begiraleak

Euskara Zerbitzuak antolatutako, Leitzan eta Areson Eguberrietan egin ohi diren aisialdi tailerrak aurrera eramateko hiru begirale behar dira. 18 urtetik gorakoa izateaz gain, abenduaren 3tik 14ra, 18 orduko programazioa aurkeztu behar da Udaletxean. Informazio gehiago 948 510814 telefono zenbakira deituz.

'Guau', hau zakur kopurua

Zakurren azken erroldan, 284 nagusiren 540 zakur agertzen dira. Gehienak ehizarako erabiltzen dira, artzai zakurrak besteak, zainketarako beste batzuk eta azkenik, "eta ez dira gutxi", "laguntza zakurrak" dira.

Maderas GOMEN



- * Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- * Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- * Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- * Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645



ANIKTONEA Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

20 URTEKO LANA PUBLIKATUA

*Historiagile
ofizialek
agertu
ez zutena*



2-3 Pedro Esarteren Nafarroako konkistari buruzko liburua: «*Navarra 1512-1530, conquista, ocupacion y sometimiento, militar, civil y eclesiástico*» liburua plazaratu du Pedro Esarte historialari elizondarrak.

4-5 Biztanleriaren bilakaera eskualdean: Iparraldeko herriak gorantz eta hegoaldekoak beherantz.

6. Aurten 69 izokin arrantzatu dituzte Bidasoan

7. Erreketa kontrolatuak egiteko hitzaldiak: UAGN sindikatuak eman ditu Nafarroan.

12. Martin Goikoetxea «Goiko» argazkilariaren zilarrezko ezteiak: 25 urteko lanak eman duena azaldu dio Lurrari.

Pedro Esartek Nafarroako konkistaren «behin betiko» historia publikatu du

20 urtez informazioa bilatzen aritu ondotik Pedro Esartek «Navarra 1512-1530, Conquista, ocupación y sometimiento militar civil y eclesiástico» liburua plazaratu du.


Pedro Esarte historialari elizondarrak «bere biziko lana» publikatu berri du. Ia mila orrialde dituen liburuan Nafarroako erreinuak jasan zuen konkistari buruzko datu aunitz plazaratu ditu bertsio ofiziala ezeztatu nahirik. Epai-keta zibiletan finkatu du bere bilaketa lana, bere ustez testigantzak epaiketa militarretan baino askoz zintzoagoak direlako. Bere bulegoan ikerketak egiten segitzen du Esartek.

Pedro Esartek ordu aunitz pasatu ditu Nafarroako artxibategi ofizialean. Aipamen konkretuen bila ibili da Nafarroaren historia 1512tik 1530era osatzeko. Halere tarteka bertze datu interesgarriak aurkitu ditu. Horiek bere bulegoan gorde eta sailkatu ditu, etorkizunera bergira baliogarriak izaten ahal zaizkiolako.

Noiz hasi zinen liburua idazteko informazioaren bila?

Duela 20 urte inguru hasi nintzen. Baztan Bailarari buruzko informazioa bilatzen hasi nintzen, baina pixkanaka ikusi nuen bertze gaien inguruko datuak aurkitzen nituela, batez ere konkistaren ingurukoak eta gai hori jorratzea erabaki nuen. Bertze lanak ere egin izan ditut 20 urte hauetan, batez ere konkistaren gaiarekin aspertzen nintzen eta aitzinet egiten ez nuenean, bertze gaiak jorratzen nituen. Ez banu bertze lanik erotuko nintzateke.

Datu konkreturen batak pizten dizu konkistari buruz idazteko



RAKEL GO I

Pedro Esarte Elizondoko bulegoan. Eskutan Nafarroako konkistari buruz publikatu duen liburua.

grina?

Frankoren garaian, prentsa foralistan agertzen zen informazioa, Del Burgo eta Aizpunek monopolizatzen zuten. Nik beti irakurtzen nuen Nafarroak Gaztelarekin bat egin zuenean zituen askatasun eta eskumen guztiak bermatu zirela. Bi erreinuak berdintasunean elkartu zirela. Baina “berdintasuna” hitza nik ez nuen ez inon ere aurkitzen arakatzen segitu nuen. Behin bakarrik ikusi izan dut “berdintasuna” hitza. XVII.

mendean, konkista gertatu baino mende bat geroago, nafarrek Valladolideko unibertsitatean ikasteko eskubidea bermatzea eskatzen zaio Gaztelari. Beraz liburua idazten joan naitzen heinean konturatu naiz, Gaztelako erregeak nahi zuena egiten zuela, hau da kalte-ordainak bazirela baina, edozein momentutan kentzen zizkietela nafarrei. Irainak etengabe segitu zuten kalte-ordainik ez zela egon ondoriozta daiteke. Adibiderik argiena kinten eskubi-


dean zegoen. Nafarroak ez zuen gerrara gizonik bidali behar, bere lurretatik kanpo. Baina Kataluniaren aurkako gerrara nafar soldaduak eraman zituzten baimenarik gabe. Erregeak ez zuen ezer errespetatzen 6 hilabeteko kalte ordainak eskatzen zirelako.

Nola sailkatu zenuen bildutako informazio guztia?

Oso zaila da. Lehenik dokumentuak bilatu, fotokopiak egin eta irakurri behar ditut. Kolorerako boligrafoetaz baliatzen naiz gaiak sailkatzeko. Dokumentu bakoitzaren azalean zein gai orokorrean sartu dezakedan idazten dut. Izugarritzko dokumentu pila dira sailkatu beharrekoak. Horregatik bertze gauzak egiten ditut tarteka. Tarte-

*Gaztelak kalte-ordainak ematen zituen
baina nahi zuen momentuan ere
nafarren eskubideak urratzen zituen*





ka editatzen nituen obra batzuk. Honek ilusioa berpiztea ekartzen zidan. Nire ustez idatzi duan liburua duela 10 urte, edo hemendik hamar urtetara publikatu zitekeen. Tesi ofizialek diote ez gintuztela konkistatu, baina nik frogatu dut, zanpatu gintuztela, 1524ean nafarrak errenditu ziren arte.

Daturen bat frogatzea zaila gertatu zaizu?

Zailtasuna datuak aurkitzean da-tza. Amaiurko gazteluko epaiketa batean 700 orrialde daude. Guztiak irakurri nituen eta batean lekuko batek Amaiurko Gazteluaren atea Arraiozen zegoela aipatzen zuen. Jauregizarra hurbildu nintzen eta han zegoela ikusi nuen. Baina horretaraino ailegatu arte a ze nolako lana egin behar den! Nafarroako artxibategia bertalde

izugarria da, ezinezkoa da guztia arakatzea. Hori dela eta epaiketa zibiletara mugatzea erabaki nuen. Epaiketa zibiletan, jendea, epaiketa militarretan baino lasaiago dago. Errazagoa da zerbait kontatzea. Halere informazioa aurkitzea, lastoaren artean orratza bilatzea bezala da. Horregatik zerbait harrapatzen dudanean izugarri pozten naiz.

Norendako baliagarria da liburua?

Interesa duen guztia errentzat. Nahi duenak erabil dezake eta bere ondorioak atera ditzake. Liburuaren eskaintzan Nafarroa defendatzeagatik hil zirenak go-goan izan ditut. Gaur egun independentzia hori galtzeagatik sufritzen dutenak eta independentzia berreskuratu nahi dutenak ere aipatzen ditut lehendabiziko orrialdeetan. ■

700 orrialde zituen epaiketa batean

Amaiurko Gazteluaren atea

Arraiozen zegoela ikusi nuen.

Doneztebeko okupazioa


«Tomas Agorreta apaiza Gaztelako enperadorearen aldekoa zen. Honi esker Doneztebe inguruan zeuden militarren egoera eta aukera zehatzak zeintzuten jakin zuen erregeordeak. 1522ko martxoaren 13an bidali zituen Agorretak informeak. Azalpen hauek kontutan harturik erregeordeak Pedro Gachopin eta Diego de Lerigoren (edo Liriaren) kapitaniak Doneztebera bidali zituen, Ur-suako Pedro buru zelararik, herria hartzeko. (...) Laguntzaileen lana saritu zuen Gaztelako erregeak.

Jasoko Miguel-en testigantza-aren arabera egoerak ez zuen kezka handirik sortu, baina eliza eta dorrearen fortifikazioan ejerzitoa gau eta egunez lanean ikusten zuten zendearen gan mesfidantza sortu zen. Setioan Joan Martinez, Ezkurra-ko Jauna; Etxaideko Jauna, Iturbideko Sancho eta bere anaia Iturbideko Juan, Irurita-ko Jauregixuriako jauna aritu ziren bertzeak bertze. Gaztelako tropak elizan eta dorrean itxi zirenean Jasok Amaiurko gazteluari armak eskatu zizkion defentsa prestatzeko. Indar militarra, Frantzia eta Alemania-

ko bi konpañiak eta Jaime Belaz eta Xabierreko Migel-enak osatuzuten. Bertiz, Zozia, Jau-regizar, Azpillueta eta Oteiza familien laguntza izan zuten. Baita Baztango biztanle gehienena ere, azken hauek erregearen deia-ri erantzun zioten. Ejerzito ttiki honekin Gaztelako tropen aurkako borroka hasi zen Donezteben.

Ustekabeen Gaztelako ejerzitoa agertu zen

Enperadorearen tropak dorrean zeudenei laguntzeko asmoz azaldu ziren ustekabeen. (...) Gaztelako ejerzitoa lehenik Ultzaman bildu zen eta honen buru Beaumont-eko Juan ezarri zuten. Era berean Ostizetik Agorretako Jaunaren etxeekin kontaktatzea lortu zuten, hor argi geratu zen nafarrek ezartzen zituzten mugak ez zirela batere sendoak, Gaztelako postak nolanahi pasatu zirelako. Dorrearen barnean zeudenei jakiak eman zizkieten eta Nafarroako ejerzitoari buruzko informeak idatzi zituzten inolako arazorik gabe. (...) Ekainaren 17an borroka gertatu zen. Beaumont-en ejerzitoak Nafarrak atzera bota zituen eta setiatuak



Biztanleriaren bilakaera eskualdean XX. mendean

Lapurdiko herriek izugarri goiti egin duten bitartean Nafarroako aunitzen egoera arras larria da. Jaoitze tasa aunitz jautsi da hegoaldeko herrrietan eta jendea hiri handietara joaten da bizitzera.

XX. mendea berriki akitu da. Ehun urtetan biztanleriaren bilakaera desberdina izan da tokiaren arabera. Lapurdiko hiru herriek, Sara, Senpere eta Azkainek biztanleak hirukoiztu dituzte. Hiri handietan lan egiten dutenen «lotarako herri» bihurtzea da zergatirik nagusia. Hegoaldeko herri gehienetan gero eta jende guttiago bizi da. Batez ere Hego-Amerika eta Afrikatik ailegatu diren etorkinek mantendu dituzte zenbaki hauek.

1960tik 2000. urtera gure herrietako populazioak nolako aldaera izan duen agertu nahi dugu, honekin batera nolabaiteko azterketa eginen dugu herrien «osasuna» nolakoa den jakiteko. Bi talde handi bereizi daitezke datuei begira: iparraldekoak eta hegoaldekoak. Egoera guztiz kontrakoa da bietan. Iparraldeko herriek biztanleriaren gorakada izugarria izan duten bitartean, hegoaldekoetan herrien hustuketa gero eta nabariagoa da. Grafikoetan ikus daitekenez zenbait herri azkeneko hamarkadan gorantz egin dute, baina azaldu beharra dago datu hau engainagarria ger-

ta daitekela aurreko urtean baino biztanle guttiago dituztelako guztiak.

Sara, Senpere eta Azkain

Hiru herri hauek Baiona-Angelumiarritze eskualdearen eragin argia izan dute. Hiri hauetan lan egiten duten aunitzek herrien lasaitasuna hautatzen dute etxebizitza egiteko orduan. Hegoaldean «herri logela» izenarekin ezaguna da egoera hau. Lur eremuak gero eta garestiagoak dira hiriguneetan eta arrazoi honengatik ere askok herrietara jo dute.

Kezka Hegoaldean

Hegoaldeko herri gehienetan biztanleria beheiti doa. Jendea hirietara doa lanaren bila eta

POPULAZIO KOPURUAK HERRIZ HERRI

	1960	1970	1975	1981	1986	1991	2000
ARANO	360	229	208	187	175	150	151
ARANTZA	1.046	801	743	723	718	730	655
ARESO	370	333	328	297	314	256	293
AZKAIN	1.605 ⁽¹⁾	1.683 ⁽²⁾	1.876	2.159 ⁽³⁾	-	2.653 ⁽⁴⁾	3.097 ⁽⁵⁾
BAZTAN	9.312	8.689	8.545	7.983	8.110	7.918	7.598
BEINTZA LABAIEN	537	411	374	281	305	308	290
BERA	2.600	2.711	3.205	3.454	3.482	3.471	3.490
BERTIZARANA	651	557	540	585	580	658	657
DONAMARIA	567	433	382	334	342	344	387
DONEZTEBE	785	892	1.024	1.061	1.123	1.200	1.359
ELGORRIAGA	190	204	207	179	168	174	206
ERATSUN	436	320	263	215	231	195	180
ETXALAR	1.109	896	849	835	829	844	789
EZKURRA	475	352	300	282	294	268	232
GOIZUETA	1.350	1.387	1.271	1.157	1.074	965	903
IGANTZI	618	658	626	607	593	579	588
ITUREN	471	434	451	444	473	479	470
LEITZA	1.564	2.606	3.144	3.240	3.136	3.123	2.939
LESACA	2.294	2.689	2.954	2.943	2.869	2.687	2.681
OITZ	204	178	168	157	141	159	144
SALDIAS	271	232	189	155	175	169	151
SARA	1.951 ⁽¹⁾	1.921 ⁽²⁾	1.871	1.929 ⁽³⁾	-	2.061 ⁽⁴⁾	-
SENPERE	2.240 ⁽¹⁾	2.416 ⁽²⁾	2.567	3.062 ⁽³⁾	-	3.491 ⁽⁴⁾	4.430 ⁽⁵⁾
SUNBILLA	951	795	711	657	704	708	688
URDAZUBI	546	494	457	537	523	459	392
URROTZ	318	240	230	198	204	180	208
ZUBIETA	500	401	373	324	339	321	307
ZUGARRAMURDI	525	341	324	315	287	267	234

Ohara: 1- 1962ko datuak; 2- 1968ko datuak; 3- 1982ko datuak; 4- 1990ko datuak; 5- 1999ko datuak

«Iparraldeko herrien
biztanleriaren gorakada
izugarria izan den bitartean,
hegoaldekoetan hustutzea
gero eta nabariagoa da»

han bizitzera erabakitzen du. As-teburuetan gehienak bueltatzen dira herrietara han gelditzen diren senideekin egotera. Hegoaldeko jendeak lotura handiak ditu bere herriarekin, eta gustatuko litzaieke bertan bizitzera baina lanik ez izateak herriatik kanpo ateratzera behartzen ditu. Leitza, Lesaka eta Beran industriak eraiki zirenean populazioa aunitz handitu zela zailtzarik ez dago. Baina industrializazioaren garapenarekin mekanizazioa ere etorri da eta lantegi askotan, garai batean ziztuzten langileen erdia behar dituzte orain.

Etorkin ugari

Zenbait herritan, biztanleriaren kopurua zertxobait handitu da herrietara etorri diren atzerritarren taldeekin. Ekuadorkoak batzuk, Europako ekialdekoak bertzeak, aunitzek uste dute pertsona hauen etorrerarekin gure herrien geroa ziurtatuko dutela. Etorkinak etxeko lanetan eta haur eta adinekoak zaintzen aritzen dira batez ere. Momentuz ia denendako lan eskaintza bada. Gerora begira ez dago argi denek lan egin ahal izanen duten. Ez dugu imaginatu ere egiten gure herriak desager daitezke-

enik, baina plan estrategikoren bat martxan jartzen ez bada egoerak ez du hobera egingen.

Ongizatearen egoera

Jendeak gero eta gehiago estimatzen du bizi kalitatea ona izatea, honengatik eta bertze faktore batzuegatik (ekonomikoak adibidez) bikoteek ge-

ro eta seme-alaba guttiago dituzte, eta gero eta beranduago izaten dituzte. Sortze tasa honen jautsierak kalte handia egin dio demografia tasari. Biztanleko jaiotzarik guttien dituen eskualdea da Nafarroa. Herrietan eskolak desagertzen doaz haurrarik ez dagoelako. Laguntza ekonomikoen politikak aunitz aldatu beharko du ego-

erak hobera egiteko.


Etorkizunera begira

Badirudi biztanleriaren tasak egonkortuko direla hegoaldean eta iparraldean gorantzko joerarekin segituko dutela. Udalek politika konkretuak gauzatu beharko dituzte euren herrien etorkizuna ziurtatzeko.



Azkainen eta Senperen 40 urtetan jende aldetik bikoiztu egin dira. Saran igoera hain handia izan ez bada ere biztanleria handitzen joan da. Iparraldeko herriak batez ere handitu dira gehien.

11 herrik egin dute goiti jende kopuruari dagokionez azken 10 urteetan



Komunikabide nafarrei emandako, laguntzen banaketaren irizpideak

Komunikabideetan euskara sustatzeko eman diren dirulaguntzetan, Nafarroako Gobernuaren irizpideak zeintzuk izan diren galdetu du Eusko Alkartasunako Begoña Errazti parlamentariak. Bertze eskaeren artean, Diario de Navarrari eman zaion 5 milioiko (200.000 libera/30.000 euro) dirulaguntzaren zergatiak ematea beharrezkoa iruditzen zaio Erraztiri.

Azaroan jakin da, Nafarroako Gobernuak euskara komunikabideetan sustatzeko emanen dituen dirulaguntzak zeintzuk izanen diren. Euskaraz lan egiten duten komunikabideak izan dira banaketa honetan kalte-tuenak, Ttipi-Ttapa barne. Iazko laguntzekin alderatuz gehien kopurua jautsi zaie. Egunkariak argitaratzen duen Nafarkariaren kasua larriagoa izan da iaz 7 milioi (280.000 libera/42.070 euro) hartu bazituen ere, aurtan ez du deus ere jasoko.

Hori dela eta Begoña Errazti, EAko parlamentariak laguntza hauek emateko irizpideak galdetu dizkio Hizkuntz Politikako arduraduna den Pedro Pegenauteri. Nafarroako gobernua «Diario de Navarra» egunkariari eman dio dirulaguntza, iazkoa baino 11 aldiz handiagoa izan da. 400.000 pezetatik (16.000 libera/2.404 euro) 5 milioitara (200.000 libera/30.000 euro) aldatu da. «Diario de Navarra» gaztelania hutsean publikatzen da, igandean plazaratzen duten «Nafar Hizkuntza» izeneko orrialdea ezik. Erraztik konkretuki «Diario de Navarra», «Diario de Noticias», «Egunkaria», «Euskalerria Irratia» eta «Ttipi-Ttapa»ri dirulaguntzak ematean izan diren irizpideak jakin nahi ditu.

Aurten 69 izokin arrantzatu dira, iaz baino 34 gehiago

Nafarroako Gobernuak egiten duen birpopulazio kanpainak emaitzak ematen hasi dira

Aurten 33 arrantzalek lortu dute izokina Bidasoan arrantzatzea. Denetara 69 arrain lortu dituzte, duela bi urte baino hiru aldiz gehiago. Nafarroako Gobernuko Arrantza eta Natura Zaintzeko Zerbitzuak urtero egiten duen birpopulazio kanpainak emaitzak eman dituzte. 1977. urtetik ez zen hainbeste izokin arrantzatzen. Hasieran arrantzaleak kexu ziren xori harraparien kopurua aunitz handitu delako, baina azkenean beldur horiek uxatu dira harripaketa kopuruarekin.

Aurten Bidasoako arrantzaleek aspaldiko partez izokin ugari arrantzatu dituzte, denetara 69 ale. Aitzineko urteetan izan diren harripaketak kontutan hartzen baditugu, kopurua handitzen doala ikus daiteke. Aurten 1999an baino hiru aldiz gehiago arrantzatu da eta iazkoaren bikoitza.

Birpopulazioaren garrantzia

Nafarroako Gobernuko Arrantza eta Naturaren Zaintzeko Zerbitzuak egindako birpopulazio lanaren emaitzak somatzen ari dira jadanik. Urtero zerbitzu honek, Bidasoa erreka hainbat izokin kume botatzen ditu urtero, erreka birpopulatzea lortzen den arte. Aurten, ekaine-


an, 79.000 alebin aske utzi dituzte Bidasoako uretan. Izokin gehienak itsasoan bi urte eman ondotik sorlekura iritsi ohi dira. Aurten itsasoan negu bakarra pasatu zutenak ere arrantzatu dituzte. Etorkizunean izokinen kopurua igotzen joanen da ezbeharrak gertatzen ez bada bederen. Amuarrainen kopurua ordea gero eta ttikiagoa da eta inoiz baino guttiago arrantzatu dituzte aurten.

Lertxunen ugaritzearen beldur

Bidasoa errekan zehar gero eta lertxun gehiago ikus daitezke. Arrantzaleak denboraldi hasieran kexu zeuden, xori hauek bertze xori arrantzaleekin batera erreka hustuko zutelako. Baina badirudi lertxunek ez dutela izokina maite, edo bertze la, bai arrantzale eta baita xorientzat arrain nahiko badela. Amuarrainen guttitzea ordea ez dago argi zergatik izan den. Aurten ez da ur zikinen isuri larririk egin. Halere errekek garraiatzen duen uraren kopurua aunitz jautsi da eta hau amuarrainentzat kaltegarri izan daiteke. Bertalde harraparien kopurua handitu diren heinean amuarrainak izan dira kalte-tuenak.

Tamaina handiko izokinak arrantzatu dituzte

Aurtengo denboraldian arrantzatu den izokinik handienak sei kilo pasa zituen. Arrantza-lea Javier Urdangarin izan zen. Izokinik ttikienak 2 kilo eta 150 gramo zituen. Denboraldiko lehen izokina Miguel Ibarrola doneztebarrak hartu zuen, "campanu" izena ematen diote toki batzuetan lehen izokinari. 5 kilo eta 650 gramo zituen eta luzeran 82 zentimetro neurtu zitkioten.■



Bidasoako izokina oso estimatua izan da betidanik.



Ornoz-Mugairiko piszifaktorian izokin alebinak hazten dituzte, etorkizunean Bidasoa errekan bertzeak bertze botatzeko.

BIDASOAN KAINABERAZ ATERITAKO IZOKINAK

1965	158
1966	324
1967	150
1968	110
1969	135
1970	74
1971	47
1972	155
1973	108
1974	31
1975	102
1976	91
1977	90
1978	41
1979	37
1980	30
1981	17
1982	0
1983	35
1984	16
1985	8
1986	40
1987	49
1988	42
1989	16
1990	27
1991	22
1992	59
1993	59
1994	59
1995	49
1996	47
1997	38

UAGNk larre-erretze kontrolatuak egiteko hitzaldiak eman ditu

Baimen ofiziala dutenek bakarrik erre ahal izanen dituzte larreak. Era berean Nafarroako Ingurumen Departamenduak onartu dituen arau guztiak bete beharko ditu nekazariak.

Eskualdeko nekazariak betidanik izan dute larreak erretzeko ohitura, baina askotan erre-keta hauek sute larriak eragin dituzte. Arrisku hau saihestu nahirik UAGN sindikatuak nekazariarentzako hitzaldiak eman ditu, araudia azaltzeko.

Norbaitek larreak erre nahi baditu lehenik eta behin baimenak eskatu behar ditu. Ondotik ikusi beharko da Nafarroako Gobernuaren debekurik dagoen ala ez egun horretan su emateko. Informazioa egunkarietan aurki daiteke Bertzela telefono honetara deituz: 112 (SOS Nafarroa) edo Nafarroako Gobernua 948 427 515, dohan informazioa eskuratu dugu. Igande eta besta egunetan ez da larre erretzeaz egiten ahal.

Segurtasun neurriak

Nekazariak segurtasun neurri



Suteek kalte handiak eragiten dizkiete basoetako landare eta animaliei.



Nafarroako Gobernuak suhiltzaileen helikopteroa, Donezteneko igerilekuan ura hartzen, sute bat itzaltzeko

batzuk bete beharko dituzte larreak erretzeko orduan. Ezin izanen da larrea ez dena erre. Errekak, zuhaitzak eta zuhaixkak zaindu behar dira. Erre behar den eremua, zuhaitzetatik 50 metro baino guttiagora baldin bada, udalak suhiltzaileei abisua eman beharko die. Sua eguzkia atera baino lehenago eginen da eta arratsaldeko 7ak baino lehenago itzali beharko da. Sua piztu baino lehenago ingurua aztertuko da eta beharrezkoa izanen balitz suebaki bat egiteko. Suebakiak guttienez 3 metroko zabalera izan beharko du. Erretzea gertatzen den bitartean sua kontrolpean edukitzeko pertsona eta materiala nahikoa izan beharko da. Guttienez 5 pertsonen taldea osatzea eskatzen da. Harretaz be-

giratu beharko da sua erabat itzaltzen den arte. Bi orduz ez bada garrik ikusi tokitik at josten ahal da. Haizea dagoenean debekatua dago sua piztea eta zoritxarrez behin sua piztu dugunean haizea agertuko balitz, erretzea bertan behera utzi beharko da. Azkenik erretzea errepideetatik hurbil egin nahi bada, haizearen norabidea zein den ikusi beharko da, sortuko den kea gidarientzat oztopoa izan ez dadin.

Markotegi kontseilaria erretzeen kontra

Nafarroako Gobernu Ingurumen kontseilaria den Javier Markotegi, larreak erretzearen kontra azaldu da. Bere ustez «ekintza honek ez baitio inolako onurarik ekartzen neka-

zalgoari eta ingurumenean arrisku handiak sortzen ditu». Hori dela eta Nafarroako Gobernua, UAGN, Suhiltzaileak eta bertze erakundeak herrietan hitzaldiak eman dituzte, nekazariak larreak erretzea ekartzen dituen arriskuaz informatzeko. Hitzaldi hauek bi helburu nagusi izan dituzte:

- 1.- Nekazariak erreketarik ez egitea.
- 2.- Erretzeak eginez gero, baimen guztiak izatea eta arauak betetzea.

Erreketen ondorioak

Larreak erretzen direnean, atmosferara CO₂ emisio handiak izaten dira. Era berean erre den lurra, eurite eta elurteetan, babesik gabe gelditzen da. Mikrofauna eragin handia du faktore honek eta landaketarako diren lurrak pobretu egiten dira. Erretzea eskutik eskapatzen denean direnean ingurumena izaten da kaltetuen. Babestuak dauden landare eta animaliak erretzen dira. Lur eremua birlandatzea oso garestia izaten da. Bertzalde birlandatzea akautzen den arte, landareak handitzen diren arte, urteak eta urteak pasatzen dira.

Isunak

Legea gero eta gogorragoa da. Azken urteotan isun handiak ordaindu behar izan dira suteek eragindako kalteengatik, erre den eremuaren eta duen balio ekologikoaren arabera.

**Larreak erre behar duenak
baimen guztiak izatea eta arau guztiak
betetzea lortu nahi da.**



EUROA

Euro txanponak aurpegi desberdinak izanen ditu herrialdearen arabera

Txanponaren bi aldeak



Behin eta berriz entzuten ari gara 2002ko urtarrilean euroa eskutan izanen dugula, baina guttitan aipatu da txanponaren alde bat herrialdearen arabera desberdina izanen dela. Adibidea ezkerreko grafikoan dago. Batasun Monetarioan sartu diren 12 herrialdeetan Euro bateko txanpona alde batetik berdina izanen da

Txanponaren bertze aldea

Halere txanponaren bertze aldeak herrialdearen berezitasuna izanen du. Herrialde gehienek egun dituzten txanponen irudiak hautatu dituzte, Espainia eta Frantzia kasu. Guk bi irudi hauek hautatu ditugu laster gure eskualdean biak nahasiko direlako. Biak balio bera dute eta edozein saltokitan erabili ahal izanen ditugu. Bi hauekin batera, alde batetik itxura desberdina duten bertze 10 aurkitu ahal izanen ditugu. Etorkizunera begira, eta batez ere turisten eraginez, txanpon guztiak nahasiko dira eta itxura guztiak ezagutuko ditugu.

Zalantzarik izanez gero

Noizbait eskutan dugun txanponarekin zalantzarik baldin badugu banketxera hurbildu eta galdetzea dugu hoberena. Halere zalantzak argitzeko Mone- ta Batasunean sartu diren herrialdeak hauek dira:

Alemania, Austria, Belgika, Finlandia, Grezia, Holanda, Irlanda, Italia, Luxenburg, Portugal, Frantzia eta Espainia.

Europar Batasuneko herrialde direnak baina euroa bere egin ez dutenak:

Erresuma Batua (Inglatera), Danimarka eta Suedia.

Orain baino txanpon gehiago

Sakeletan balio diferenteko 8 txanpon eramanen ditugu. 1 eta 2 euro balio dutenak, eta 50, 20, 10, 5, 2 eta zentimo batekoa. Harretaz begiratu beharko ditugu hasieran ez konfunditzeko baina, euroari ohituratzea erraza izanen da. Mugetatik hurbil bizi garenok eskertuko dugu batez ere, ez dugulako txanponak aldatzen ibili beharko.

ABELTZAINZA



Ingurumen Departamenduak behitegien dekretua atzeratu du


2003. urteko abuztuaren 7rako herri barnetan dau den ikuilu eta granjak kendu beharko dira. Hala dio Nafarroako Gobernuak onartu duen dekretuak. Hasiera batean dekretua 2001ean indarrean jarri behar zuten, baina azkenik, zenbait udalerrrik hala eskatuta, bi urtez atzeratu da dekretuaren ezarpena. Honela bada, gaur egun herriguneetan ikuiluak eta granjak dituztenak, horiek kendu edo handik kanpo eraiki beharko dituzte behitegi berriak. Baztango Udala dekretu honen aurka agertu da nekazariei sortzen dizkien arazo eta kalteengatik.

PREZIOEN GORABEHERRAK • PREZIOEN GORABEHERRAK • PREZIOEN

ZERRIKUMEA

* 19 Kilokoa


Azkeneko joera



ZERRI GIZENA

* 95-100 kilo artean Pta./K.

Azkeneko joera



ZEZENAK

Domecq, Mihura eta Osborne zezenak lesakarrak ote?

XIX. mendean Lesakako Pedro Jose Pikabeak «lesaqueños» zezen famatuak hazi zituen Sevillan. «Lesaqueños» izenarekin 1832. urtean agertu ziren lehenengo aldiz Madrilgo zezen plazan.

Zezen ganadutegi guztiak Espainiako hegoaldekoak ez direla argi dago, baina guttik dakite XIX mendean izan zen ganadutegi ospetsuena bat lesakar batena zela. Gaur egun Santa Coloma deitzen den arraza «lesaqueños» izeneko zezenetan du jatorrietako bat. Kasta handiko zezenak omen ziren, arras indartsuak, epe labur batean 20 pikatzaile bota eta 8 zaldi hil zituzten plazetan.

1827. urtean Lesakako Pedro Pikabeak saltillo arrazako zezenak jaso zituen herentzian. Pedro, Sevillan bizi zen abeltzain ospetsua zen. Hil zenean bere alabak, Isabel Montemayor-ek hartu zuen ganadutegia bere gain. «Lesaqueños» izenarekin



Lesakako Nabaz auzoan dauden Pikabea eta Pikabea-Etxeberria baserriak daude. Pedro Pikabea abeltzaina bertakoa zela uste da. Horren adierazgarri bi baserrietan ikus daitezken harmarriak.

1832ko uztailaren 2an agertu ziren Madrilgo zezen plazan lehenengo aldiz.

Bertze jabeak

Isabelen semea, Lesakako Jose Pikabea izan zen hurrengo jabea. 1854. urte inguruan ganadutegia Saltilloko Markesari saldu zion (ia 800 zezen inguru) eta ganadutegiaren izena aldatu zen Saltillo izenaz ezagutzen direlarik. Urte aunitzetan zezen hauek plazetan garrantzitsuenak izan ziren. Garai hartan Saltillo izena zutenak erran daiteke egun Osborne edo Victorino Martin izenak dituztela bertzeak bertze.

Kasta handiko zezenak

Gaur egun ere zezenak maite dituz-



tenak horrelako arraza indartsuak falta direla aipatzen dute. XIX. mendeko egunkari baten kronikak dionez zaldietatik 20 pikatzaile bota zituzten eta denetara 8 zaldi hil zituzten zezen Lesakarrekin. Itxurari dagokionez lesakar zezen gehienak *urdinak*, beltzak pintto guttirik eta marroiak ziren, hezurak agerian zituztenak eta adar finekin.

Lesakako Pikabea baserria

Zezen hauen arrastoa Lesakan ikus daiteke oraindik. Nabaz auzoko Pikabea eta Pikabea-Etxeberria izeneko baserrietan ganadutegiaren harmarriak daude oraindik. Horien irudiak kontakizun honen azpian ikus ditzakezue. Guttik erranen luke te gugandik hain hurbil zezen ganadutegiaren jabeak bizi izan zirela. ■



GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •



ARTIKULUAK

Euskal abizenak amerikanizatuak

Linda White Renoko unibertsitateko irakasleak ingelerak euskal abizenengan izan duen eragina aztertu du. Gertatzen ohi den bezala zenbait abizenek aldaketa nabariak jaso dituzte.

Linda White (Kalifornia, 1943), Nevada-Renoko Unibertsitateko euskara irakasle da *Center for Basque Studies*-en. Euskara-ingeles hiztegiaren egileetakoa, Gorka Aulestiaekin batera, eta euskaraz idatzi duten emakumeen gaineko tesiaren egile da. Bestalde hainbat artikulu idatzi ditu euskal literaturako galak jorratuz. Orain, euskal deiturek EEBBetan jasan izan dituzten aldaketen berri eman du, Euskaltzaindiak argitaraturiko artikuluan.

MUGA-ARDURADUNEN EZJAKINTASUNA

Irakasle honen arabera, mugan bertan hasten ziren zailtasunak. Arduradunen ezinak ziren arrazoi nagusi. «EEBBetara heldu orduko, muga-arduradunak euskaldunen xehetasunak paper eta agirietan idazten hasten ziren baina ez zekiten zenbait deltura nola idatzi, eta idazkera asmatzen zuten. Entzuten zutena idazten zuten, besterik gabe. Beste batzuetan, euskaldunak etorri, muga-arduradunaren aurrean paratu eta deitura inork ezin zuela zuzen idatzi konturatu eta deitura laburtzen zuten».

MAKUERKIAGA, McERKIAGA

Joan den mendeko kontuak dira. Linda Whitek hainbat adibide bildu ditu artikulua idatzi aurretik. Makuerkiaga, esate baterako,

McErkiaga bihurtu izan da EEBBetan, eskoziar erara idatzirik. Irakasleak adierazi duenez, ingelesez hitz egiten dutenek horixe dute gogoan: «*McDonald's, Mc hau, Mc hura. Hortaz, Makuerkiaga entzuten dutenean, McErkiaga interpretatzen dute*». Edo, bertze adibide bat emateko, Nevada-Renoko Unibertsitateko irakasle ohi baten kasua: Magunagoikoetxea. Nonbait, zailegi, luzeegi zen deitura hori, eta Maguna besterik ez zuen erabili izan

GO I BAT ERE EZ

Bestalde «ñ»-a ere gorabehera dute EEBBetako euskaldunek. Ondorioz, Nafarroa Garaitik zein Beheretik, Nevada eta Kaliforniara joandako Goñi denak «Goni» dira. Modu berean, ez da Braña deiturarik, ez Los Baños herririk: Brana da deitura, eta Los Banos herria. Eta Linda Whiteren oharra: «*Beste aldaketa bat. Azkenetako, euskaldunek ere etsi eta onartu besterik ez dute*».



Linda White Renoko Unibertsitateko euskara irakaslea.



BARATZE XOKOA

GOMENDIOAK



ENBORRAK ZEPILLATU

Honela neguko izurriteak kenduko dituzu. *Zorri Lanigeroak* adibidez, neguan enborretako zuloetan eta autsitako adarren zaurietan sartzen dira. Espatula batekin enborra arraskatu, ondotik ile gogorak dituen zepilloa xomorroak hiltzeko likidoarekin busti eta gogor arraskatu.

AZALOREEN HOSTOAK LOTU

Burua xuria izan dadin lortu nahi baduzu eta ez baduzu euria, elurra edo eguzkiarekin horitzea nahi, lotu hostoak. Azpiko aldean dituen hosto zaharrak hartu eta hari fin batekin lotu.

AZERIBUZTANA ONDDOEN KONTRA

Landareek onddoak badituzte, azeribuztana (*equisetum arvense*) erabili. Landarearen silizeak ez die onddoei landarera igotzen uzten. Azeribuztana sustrairik gabe hartu eta urean egosi. (kilo bat/10 litro ur). 3 egun eguzkitsu jarraietan goizez bota.

TURISMOA



Larungo Trena udaberri aldera berriz ere martxan jarriko dute.

Iaz baino bisitari gehiago Saran

LARUNGO TRENA

Saran Lezeekin batera Larungo trenna da bisitaririk gehien hartzen duen ikusgarria. Aurten 352.000 pertsona igain dira Tren Tikian, iaz baino 20.000 gehiago. Bisitari gehienak Frantziarrak izan dira, Bordenle eta Pabekoak gehienbat. Turisten %10a hegoaldekoa izan da. Aurten egin duen eguraldi onak jendearen kopurua igotzen lagundu du.

Udaberriko oporrak ailegatu arte trenna geltokian izanen da bitartean Sararat hurbiltzen diren bisitariak bertze tokietarat jo beharko dute.

SARAKO LEZEAK

Sarako lezeetan 97.000 bisitari hartu dituzte aurten. Iaz baino zertxobait guttiago izan da, arduradunen ustez turisten egonaldiak motzagoak izan dira aurten, aste bakarrekoko.

EGUTEGIA Abendua-martxoa

BARATZEAN

1.- Erein

• BARATZEAN: Tipulak, espinakak, ilar-berdeak, baratxuriak, babak...

• NEGUTEGIAN: (Martxo aldera) letxuak, tomateak, piperrak...

2.- Landatu

• Letxuak, azak, porruak...

LORATEGIAN

1.- Erein

• Bulboak: Nartzisoak, tulipanak, irisak...

2.- Landatu

• Pentsamientoak, margaritak, alheliak, zuhaixkak, arbolak.

MAHATSONDOAK EGITEKO

1-KIMATZEA

Mahatsak bildu ondotik hostoak kendu eta adar luzeak moztu.



2-MOZKETA

Zurtaina zatietan moztu, zati bakoitzatik bi kimu izateko. Mozketa garbiak egin, anguloa-ekin eta 2 noduloen artean de-
nean horizontalki moztu.




3-ALDASKAK LANDATU

Aldaskak edo eskejeak turban, lur beltza eta legarrean jarri. Ura bota eta loreontzia negutegian utzi.



4-BIRLANDATU

Behin aldaskai zainak atera zaizkionean banaka lorontzie-
tan landatu. Toki eguzkitsua eta babestu batean utzi.



TTIPI-TTAPA TB

Hiru astaputz erraldoi hartu dituzte Aurtitzen

Aurtitzen bizi den Jose Mari Altzurik 3 astaputz erraldoi hartu zituen azaroaren 15ean Aurtizko mendi batean. Jose Mari sortzez sunbildarra da eta Doneztebeko feriara astaputzak eramatea pentsatu zuen, erakusteko.

3 astaputzek 6 kilo pisatu zituzten. Ez da arrunta Euskal Herriko mendietan honelako perretxikorik hartzea baina tarteka, batenbat agertzen da. Hala gertatu zitzaion Jose Mari Altzuri sunbildarrari. Mendian zebilela irudian ikusten diren astaputzak hartu zituen. Kotxeko maleteroan sar-

tu eta biharamunean Doneztebera feriara eramatea erabaki zuen. Astaputz hauek harridura handia eragin zuten ikusi zituztene artean.

Euskal Herrian aurkitu den astaputzarik handiena 7 kilokoak izan da baina Europan 20 kilokoak ere hartu dituzte. Bere izen zientifikoa «*Langermannia gigantea*» da eta berria delarik jangarria da. Zahartzen den heinean horitzen eta zartatzen da, barnean dituen esporak laxatzeko.

Mendian pasaietara joaten zarenean kasu! harri xuri horiekin, irudietan ikus daitezkeen astaputz erraldoiak izan daitezkeelako.


ak. Bertze urteetan bi aste guttienez egoten ziren eta honek gauza gehiago ikusteko auketa ematen zien. Era berean eguraldi onak jendea hondartzara eramane du. Oraindik ere norbaitek lezeak bisitatu nahi baditu, urtea finitu arte egonen dira irekiak.

TURISMO BULEGOAREN DATUAK ERE POSITIBOAK DIRA

Sarako turismo bulegotik ere, urtetik urtera gero eta jende gehiago pasatzen da. Jadanik iaz baino 512 pertsona gehiago zenbatu dituzte eta oraindik azaroa eta abenduko datuak falta dira. Denetara, urria bitarte, 15.782 turista eta bisitarik es-

katu dute informazioa Sarako turismo bulegoan, gehienak Frantziatik etorritakoak ziren. Urtetik urtera bisitarien kopurua handitzen doa. 1996an 9.459 pertsona zenbatu zituzten. 1997an 200 guttiago. 1998an izugarrizko gorakada izan zen 13.106 pertsonekin. 1999an 125 gehiago izan ziren. 2000. urtean 15.170 bisitari izan ziren turismo bulegoan.

Iparraldeko eta Frantziako jendea da gehienbat Sararat hurbiltzen dena. Halere Hego Euskal Herriko datoren jendea handitzen ari dela nabaritu dute arduradunek. Euroaren etorrera turismoarentzako onuragarria izanen dela uste da.



Sarako lezeetan argiz eta soinu egindako muntaia ikus daiteke. Urte bukaera arte irekiak egonen dira.

AZKEN ORRIALDEKOAK

**Bi herbizida debekatu ditu Frantziako Gobernuak**

Arto eta mahasti landetan erabiltzen ziren bi herbizida debekatu ditu Frantziako Gobernuak kutsagarriak zirelako. Kantitate handietan herbizida hauek minbizia eta bertze eritasun larriak eragin ditzakete. Herbiziden bi osagai baztertu dira: triazinak eta sosa arsenitoa.

**Arto eta zerealen laguntzak onartu dira**

Nafarroako Gobernuak arto eta zerealen produktoreei ematen dizkien laguntzak onartu ditu. Denetara 8.861 milioi pezeta (53 milioi euro baino gehiago) banatuko dira 11.361 produktoreen artean. Nafarroako produktoreek iaz baino 290'6 milioi guttiago kobratuko dute Espainiak kupoa gainditu duelako.

**Industriarako lurraren beharra Malerreka eta Bertizaranan**

Jose Mari Aierdi, Nafarroako Eako parlamentariak, lan bilera bat antolatzea eskatu dio Ganbarari, Malerreka eta Bertizaranako udalek duten industriarako lurraren beharra azaldu dezaten. Zehazki Aierdik, Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Ituren, Oitz, Saldias, Doneztebe, Urrotz eta Zubietako alkateen agerpena eskatu du afera tratatzeko.

«Haurren erretratoak egitea gustatzen zait, aurpegiak keinuak arras politak dira»

Nola erabaki zenuen bulegoa utzi eta argazkilaritzan hastea?

Aitzinetik argazkiak ateratzen aritu nintzen, ez nuen fabrika bapatean utzi, arrisku bat zen dena utzi eta dena jartzea, baina azkenean probatzea erabaki nuen. Bizian hartzen diren erabakiak dira, ez dakizu ongi edo gaizki aterako diren baina saiatu behar da.

Nola moldatu zinen ordutegi berrira?

Aise hobe! Lesakan 5 urte pasatu nituen lantegi batean turnoak egiten, gero goizez lanean 15 urte pasatu nituen. Argazkilari lanetan aise hobe moldatzen naiz, nik gustoko dudana lana egiten ari naiz, oso aktiboa naiz eta argazkilaritzak ematen dit behar dudana aktibitate puntu hori. Hau oso dibertigarria da, egun guztiak desberdinak dira.

Zein motako argazkiak egiten zenituen hasieran?

Denetarik pixka bat. Paisaiak, herrietako bestak, Lesakako Zakozarrak, beno batzutan Sanferminetara ikusle moduan joan izan naiz. Berriki 1980ko Arantzan egindako argazkia aurkitu dut, hainbat dantzari dira, gehienak ezkonduak daude jadanik.

Atera dituzun argazkietatik zein duzu gustokoena?

Edozein tokitara joan behar dudanean eta nik nahi eta sentitzen dudana argazkia ateratzen ahal dudanean. Haurren aurpegiak aunitz gustatzen zaizkit, Olentzero egunean dituzten keinuak arras politak dira. Xaharrenak ere bereziak dira, bizardunak, boneta eramaten dutenak...



TOMAS GOIKO

«Argazkilaria izatea oso dibertigarria da, egun guztiak desberdinak dira»

**25 urtetan teknika aunitz aldatu da?**

Bai aunitz, hasierako urteetan erabiltzen nituen argazki makinak ikusterakoan konturatzen naiz ze nolako garapena izan duen argazkilaritzaren munduak. Lehen dena eskuz egiten genuen, errebelatzea eta guzti. Orain gehiena mekanizatu da. Halere xuri eta beltzeko argazkiak pila bat gusatzatzen zaizkit, ezkontza erreportaetan adibidez gero eta gehia-

Martin GOIKOETXEA «GOIKO»

ARGAZKILARIA

1976ko AZAROAREN 11n

HASI ZEN ARGAZKIAK

PROFESIONALKI EGITEN. BERE

ETXEAN ZUEN GELAN

ARGAZKIAK ERREBELATZEN

ZITUEN. 1985EAN BULEGOKO

LANA UTZI ETA ARGAZKI

DENDA EZARTZEA ERABAKI

ZUEN. «GOIKOK» 25 URTE

BETE DITU AZAROAN

ARGAZKILARITZAN.

go erabiltzen ditut. Artisanen modura egiten ditut argazki hauek, batzuren ustez erotua nago horrelako teknikak oraindik erabiltzen ditudalako, baina, ni aunitz pozten naiz ni bezalako eroak badaudela ikusten dudanean.

Digitalizazioarekin moldatzen zara?

Pixkanaka ikasten hasi naiz. Gauza guzietan bezala, hasieran errespetu pixka bat izan behar zaio. Batzutan oso erabilgarria da eta bertzetan ez hainbertze. Kazetarien lanarentzat aurrerapen izugarria da. Momentuan argazkiak atera eta internetetik bidali ahal izatea abantaila izugarria da.

Argazkiren bat utzi duzu egin gabe?

Bai, Balin nengoela bertako gizon bati argazkia atera nahi nion. Turbantea, burukoa, eramaten zuen eta begirada lasai bat zuen. Xorututa bezala utzi ninduen eta ezin izan nion argazkirik egin.

Lurra

Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria**Argitaratzailea:** Lurra Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1

• 31780 BERA

• **Maketazioa eta erredakzioa:** Rakel Goñi• **Inprenta:** Gertu• **Tirada:** 7.100 ale **Lege gordailua:** NA-966/1998

Aldizkari honek
Nafarroako Gobernuaren
laguntza jaso du

BAZTAN

Xauli gazte bulegoak ikastetxeetan informazio guneak jarriko ditu

Gune hauek ikastetxeetako bi ikaslek zuzenduko dituzte

Rakel GO I

Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa ikastetxera hurbiltzea da Xauli Gazte Informazio Bulegoaren helburua. Horretarako informazio gune batzuk sortuko dira eta hauen zuzendari izateko ikastetxeko edozein ikaslek aurkez dezake bere proiektua. Guztien artean bi proiektu hautatuak izanen dira eta elkarrekin talde bat sortuko dute. Talde honek 721,21 eurotako (120.000 pta) beka eskuratuko du.

EGIN BEHARREKO LANA

Ikasleek ikastetxean ezarritako Informazio panelak gaurkotuak kontu beharko dituzte. Jende aurreko harrera astean gutienez bi orduz emanen dute, galdarak erantzuteko eta ikastetxean antolatutako ekintzak ezagutzera eman. Hautatua suertatu den taldeak astean behin XAULI Gazte In-



RAKEL GO I

Lamiarritako bidegurutzea nondik hartu behar den zalantza dute aunitzek. Irudian duzuen bidegurutzetik eskuinera Erratzura joan daiteke eta ezkerreko Arizkungo Ordoki auzora. Zalantzak kasu honetan sortu dira. Ze bide hartu behar da ezkerretara joateko? Aunitzek uste dutenaren kontra eskuineko bidea hartu behar da ezkerretara, Ordokira, joateko. Arazoa kamioiekin heldu da ez baitute tokirik, ezta malgutasunik ere hori egiteko. Guardia Zibilak egoten dira aunitzetan bidegurutzea zaintzen, kasu bada ezkerreko bidea hartzen segitzen duzuenak.

formazio Bulegora hurbildu beharko du informazioa bildu eta gero ikastetxean ezagutzera emateko. Abenduan hasi eta ekainera bitarte egiten da lan hau. Bekak eskuratzeko gaz-

teek proiektuak mekano-grafiaturik aurkeztu dituzte eta 2-8 orrialdeko luzerarekin. Bertan azaldu dute, erabiliko dituzten ordutegiak, lana nola antolatuko duten, egingen dituzten bil-

gurak, eta Informazio Gunea martxan jartze-ko egingen dituzten gauza guzien azalpena. Hautatuek formakuntza ikastaroa egin eta aldi berean ekaina arteko lana egingen dute.

FLASH

Elizondoko kiroldegia- ren zola moldatuko dute

Aspalditik Elizondoko kiroldegia- ren zola ego- era kaxkarrean zegoen. Astero hainbat taldek entrenatzen dute han eta beharrezkoa zen moldaketa hori. Baz- tango Udalak lehiaketa publikorako deialdia egi- nen du lanak egiteko, 14.355.334 pezetako aurrekontuarekin.

Baztango Mendigoizaleak

Abenduaren 2an Be- launera izanen da irte- era. Abenduaren 9an Basaburuako Itzulia egi- nen dute eta abendu- ren 16an Gorramendi- ra izanen da mendi ibi- laldia.

Pello Salaburuk liburua publikatu du

"XX. mendearen argiak eta itzalak" izenburu- pean Pello Salaburu euskaltzain arizkunda- rrak, bere lehen entse- gu lana publikatu du. XX. mendean izandako gertakarien hausnarke- ta egiten du idazleak en- tsegu honetan.

Santa Barbara Elbeten

Abenduaren 4an San- ta Barbara basilizan meza emanen da.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
☎ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA

JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO


BAZTAN

Eguberrietako postalen lehiaketa antolatu du Baztango Udalak

Urtarrilaren 10a arte I aki Lazkozen lanak ikusgai egonen dira Arizkunenean

Rakel GO I

Baztango Udaleko kultura sailak eta Xabier Santxotenak postalen lehiaketa antolatu dute. Postalak kartulinar eginak izan behar dira, 21x14 zentimetroko neurriarekin. Postalen atzekaldean egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri behar dira. 5 eta 12 urte dituzten haurrek parte ahal izanen dute. 4 sari banatuko dira: 1goa, 5 eta 6 urte dituzten haurrendako, bigarrena 7 eta 8 urte dituztenendako, hirugarrena 9 eta 10 urteko haurrentzat eta laugarrena 11 eta 12 urteko haurrendako. Partehartzaile bakoitzak postal bakarra aurkeztu dezake. Epea abenduaren 10ean akituko da. Postal guztiekin eguberrietan erakusketa eginen da Bozateko Gorrinea etxean. Lehiaketa eta erakusketaren babesleak La Caixa Banketxea izanen da. Sari banaketa abenduaren 15ean, igandean, eginen da arratsaldeko 6etan.



JOXEMARI SAGASTIBELTZA

Oroigarria jarri dute Gorramendin

Asier Irigoien eta Joxe Martin Iturralde Elizondoko gazteen omenez oroigarria jarri dute euren lagunek Gorramendiko antenetatik hurbil. Bi gazte hauek errepidean galdu zuten bizia eta heuren lagunek omenaldi xume hau eskeintzea erabaki zuten. Oroigarria argazkian ikus daitekenez harri landu bat da eta bertan 'Joxe Martin eta Asier beti gurekin' hitzak irakur daitezke.

duaren 15ean, igandean, eginen da arratsaldeko 6etan.

I aki Lazkozen erakusketa

I aki Lazkoz iruindarra-

ren lanak ikusgai egonen dira Arizkunenea Kultur Etxean, abenduaren 12tik heldu den urteko urtarrilaren 10a arte, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.

Lazkozek eraikuntzak, izaki bizidunak eta objektuak bereak egin eta erretratatzeko dituzte. Margolari honek Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen ikasketak.



PERTSONAIA

Agustin BLAS

Agustin Blas Oronoztarra enduro motoan Nafarroako bigarrena

Agustin Blas Oronozko gaztea enduro moto modalitatean Nafarroako Txapelketan bigarren postua eskuratu du. Lehenengo urtea du enduron aritzen dela eta jadanik 12 proba inguru burutu ondotik bigarrena izan da. Enduro modalitatean erresistentzia frogak egiten dira, moto gidariak gehienetan bi orduz aritu behar dira zirkuito batean. Azkenean denborarik onena egin duenak garaipea eskuratzen du. Agustin Blasek ez du esponsorrik ezta inolako diru laguntzarik ere, bere saketatik ordaindu behar izaten du guztia. Nafarroako Federazioak Sevillan eginen den Espainiako txapelketara joateko gonbidapena egin dio eta honek aunitz poz du moto gidaria.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 ☎ 948 580939
ELIZONDO

**EGUBERRIETAKO
OPARI BEREZIAK**

**PUNTUZKO JERTSEAK,
BEROKIAK, OSAGARRIAK...**

Okindegia

Jatetxea


Uxo

☛ Okindegian

• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

☛ Jatetxean

• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkargatuz gero,
bildotsa ogi-labea errea.
Goxo-goxoa!*

SARA

Xareta aldean kontsortzioa egin nahi da

Olhain ikastolaren biltzar nagusia iragan zen azilaren 16an

A a Mari eta Fred

Txingudiko Irun, Hondarribia eta Hendaian egina izan den bezala, Xareta aldean ere Kontsortzio bat egitearen ideia agertu da. Hala ere, Sara, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiren arteko egitura berri horren sortzeko 70.000 libera eskas dira, eta Herriko Etxe guziaz ez dira diru horren ordaintzearen alde. Errangabe doa herri guzien oniritzia funtsezkoa dela proiektu hori aitzina eraman ahal izateko. Alta, kontsortzioak eskainiko lituzkeen abantailen artean, zerga lau herrien artean kudeatzeko posibilitatea bada, denek kutxa bera ukan dezaketelarik. Orain arte, Xaretako herriek dirulaguntzak noizbehinka erdiesten dituzte txosten berezi ba-

tzuentzat, hala nola Sarako eta Zugarramurdi-ko lezeen arteko bidearen egiteko adibidez. Ikusiko aspaldian naturalak diren muga gaineko harreman horiek ofizialki gauzatuko diren datoen hilabetee-tan.

Ikastolaren biltzar nagusia

Azilaren 16an, Olhain ikastolaren biltzar nagusia iragan zen Gazteen Etxean. 2000-2001 ikasturteko konduak ikusi ziren: diru iturri nagusia urtean antolatzen diren ekitaldiak dira, gero herriko etxearen dirulaguntza eta burasoen partizipazioa. Aurtan, haurrek herriko etxeak eraikitako lokal berria estreinatu dute (zer aldaketa!) eta elkartek fotokopiak egiteko makina berria ero-



Zutik Jean Aniotzbehare auzapeza, Sylvie Fagoaga Olhain ikastolako lehendakaria, Arantxa Indaburu lehendakari ordea eta Marie Pierre Uhart idazkaria. Jarrita Ainhoa Zelaia irakaslea, Th r se Gijarro ikastolako langilea eta Jos e Agesta idazkari laguntzailea.

si du. Bertalde, haur kopurua urtetik urtera emendatzen ari da, momentuz 14 ikasle dira baina Bazkotik goiti bertze lau haurrek hartuko dute ikastolako bidea. Urtariletik goiti, Ainhoa Zelaia irakaslea laguntzeko Herriko Etxeak bere gain hartuko du egutero 3 orduz arituko den presunaren jorнала.

Azkenik, bulegoaren berritzea bozkatu da. Hala nola lehendakaria Sylvie Fagoaga izanen da, ordezkaria Arantxa Indaburu. Diruzainak Murielle Txapartegi eta A a Larzabal izanen dira eta idazkari lanetan Marie Pierre Uhart eta Jos e Agesta arituko dira. Sei urtez lehendakari aritu den Bittori Etxeberri Herriko Etxearen

eta Gaztetxearen laguntzak eskertu zituen.

T l thon

T l thon miopatiari buruzko ikerlanen sustengatze kanpainak abenduaren 7an eta 8an antolatua izanen da guzere herrian. Ortzirale arratsaldean hiru eskoletako haurrek plazatik abiatuz oren bat eta erdiko ibilaldia egingen dute, aitzinetik bakoitzak eresia izanen duen lurrik bere kilometroa. Oinez ibili ondoren krakada goxo bat hartzeko manera eskainia izanen da haur guzietari. Larunbat arratsaldeko 4etan herriarrak Larrunerat treinez upatzea gomiatuak dira, iluntzean xirio pixtuekin oinez jausteko. San Inaziora ailegatu

eta, edateko eta jateko manera izanen da eritasun genetikoaren sendatzeko sosa biltzeko.

Mikel Dalbret

Abenduaren 1 eta 2an Mikel Dalbret herriko margolariak bere tailerreko ateak zabalduko ditu publikoari. Orduan, gogoan hartu egun hauek eta hurbildu Omordiarat. Artista honen margoak ikusteko parada izanen da, berarekin mintzatzeko manera baita ere!

Zirimolan

Azken ekitaldia igandehuntan, abenduak 2, egingen da Omordian. Arratsaldeko 4etan Xirristi Mirristi taldearen "Lamintegiko Laminak" antzezlanak ikusgai.



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

HORTZ KLINIKA

Dr Guy Cadillon

3 dentista espezialidade guzietarako



HORTZ ESTETIKA

IMPLANTOLOGIA (20 urteko esperientzia) • ORTODONTZIA

Aduana k., 2 • IRUN • Tel. 943 619848

AZKAIN

Ikastolako burasoak lanean

Bigarren gela bat eraikia izan da

Ihintza, Angela eta Eneko

Haur kopurua handitzen ari zela eta, bigarren gela bat eraikia izan da, bi taldetan lan egiteko asmoarekin: 2-3 urtekoak alde batetik eta 4-5 urtekoak bertetik. Bigarren irakaslea Idoia Feldman deitzen da. Herriko Etxeak lan handienak bere gain hartu ditu. Burasoek aldiz azken lanen bukatzen ari dira. Espero dute Abenduan finituko dituztela, haurren etxea libro uzteko lehen baino lehen.

Heldu den urtean Ikastolak bere urtebetetzea ospatuko du: hogita hamar urte idekia

dela. Burasoak besta baten egitea aipatu dute: 2002-2003 eskola urtean.

Sostengu Poteoa

Aratzen aldeko Sostengu poteoa egin da Azkaingo ostatueta Azaroaren 16an ortzira learekin. Salgai eza-riak ziren pintxoekin diru kopuru tiki bat bildua izan da. Epaietaren gastuak arintzen ahal-ko ditu pixka bat Orduan! elkarteak. Epai-keta Abenduaren 3an iraganen da eta autobus bat antolatua da hogiretarako.



Burasoek abenduan finituko dituzte lanak.



Turismo bulegoak antolatzen dituen selauru huesteek segituko dute hilabetearen behin. Selauru huestea hilabete bakoitzeko bigarren larunbatean egiten dira goizeko 8etarik arratsaldeko 6etara herriko plazan. Leku baten lortzeko turismo bulegoratu deitu behar da edo Etxegoien jaunarekin harremanetan sartu (tel: 05 59 54 09 60). Tokiak: 2,50 mx2,00 m. Prezioa: 50 F.



Abenduaren 3an iraganen da Aratzen epaiketa.



Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia

Agerra Auzoan

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alferdua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

(943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

FLASH

Gabriel Ibarburu Munduko xapelduna

Gabi pilotari Azkaindarrak Uruguayko xapelketatik itzuli da Xapeldun tituluarekin. Ondoko aleko gehigarrian kondutuko dizkigu bere abenturak.

Ihauteriak

Altzalili eta Gemuku elkarteek Ihauterietako eguna otsailaren 16an finkatu dute. Oroitarazten dute ere ospakizun horri buruzko edozein dokumentu miazten dituztela (argazkiak, lekukoak, liburuak).

Larrungo Kurtza Frantziako Kopan aurtun ere

Aurtun sekulan baino parte hartze gehiago izan da lasterraldian, Frantziako koparen eragina behar bada (477 lasterkari eta 89 haur). Atletismo elkarteak jakinarazi nahi du 2002 urterako ere Larrungo lasterraldia hautatua izan dela Frantziako Koparako. Elgarrekin taldeak parte hartu duten langile guztiak eskertu nahi ditu lan ona egin izan baita (120 langile). 2002ko aboztuaren 11an finkatua da ondoko lasterkaldia.

Kantu bazkaria Joseba Tapiarekin

Joseba Tapiak kantu bazkari bat alaituko du Kiroletako saski-baloi gelan abenduaren 2an, igandearekin. Eguerditan aperitifarekin hasiko da eguna trikitilari-kin. Bazkaria 13:00etan finkatua da (80 L, 2000 pta). Izen emateak aitzinetik egiten ahal dira 05 59 54 49 80 (18etatik goiti). Bazkaria Baionako Etxepare lizeoaren alde antolatua da.



JAİOTZAK

Amy Beth Clifford, Elbetekoa Irlandan, urriaren 3an.

Eneko Maiora Iribarren, Lekarozkoa, azaroaren 3an.

Lucia Tranche Urtasun, Elizondokoa, azaroaren 5ean.

Julen Zabaleta Alduntzin, Leitzakoa, azaroaren 9an.

Egoitz Sanchez Lizeaga, Leitzakoa, azaroaren 12an.

Aimar Saldias Larraioz, Oitzekoa, azaroaren 16an.

Muno Frieda Wieneck Etxeberri, Azkaingoa, urriaren 12an.

Chlo Pinel, Azkaingoa, urriaren 13an.

Eki Ariszaga, Azkaingoa, urriaren 19an.

Amalia Lisa Marie Wiederkehr, Azkaingoa, urriaren 27an.

Rapha I Max Michel Abart, Azkaingoa, urriaren 31an.

Lucas Jean-Pierre Genest, Azkaingoa, azaroaren 11an.

Marie Clara Genest, Azkaingoa, azaroaren 11an.

Kima Hirigoyen, Azkaingoa, azaroaren 14an.

Mikel Irigoien Irazoki, Berakoa, azaroaren 20an.

HERIOTZAK

Maximo Otxoteko Almandoz, Lesakakoa, azaroaren 15ean, 70 urte.

Maria Jesus Baleztena Mikeo, Lesakakoa, azaroaren 20an, 46 urte.

Isabel Sagastibeltza Iturrarte, Leitzakoa, azaroaren 6an, 71 urte.

Benito Astibia Baraibar, Leitzakoa, azaroaren 17an, 98 urte.

Fernando Mindegia Larraburu, Donamariakoa, azaroaren 16an, 79 urte.

Flora Andueza Diaz, Berakoa, azaroaren 14an, 93 urte.

Norberto Apezetxea Larralde, Arantzakoa, azaroaren 11n, 90 urte.

Miguel Angel Ibarrola Zabala, Arantzakoa, azaroaren 19an, 68 urte.

Louis Marcel Chenal, Azkaingoa, urriaren 2an.

Edwige Jeanne Garcia, Azkaingoa, urriaren 8an.

Marie Louise Jos phine Rabex, Azkaingoa, urriaren 13an.

Raimond Pierre Cl ment Genty, Azkaingoa, urriaren 22an.

Marie-Jeanne Elissalde, Azkaingoa, urriaren 29an.

Joset Haristegi, Sarakoa, azilaren 7an, 73 urte.

Pierre Errandonea, Sarakoa, azilaren 8an, 60 urte.

Marie Ducasse Sonnet, Sarakoa, azilaren 14ean, 89 urte.

Anne Marie Piguet, Sarakoa, azilaren 16an, 46 urte.

Joxe Mari Otaegi Sarasola, Aresokoa, azaroaren 7an, 68 urte.



EZKONTZAK

Santiago Lago Fernandez eta **Maria Elena Etulain Altzualde**, Pontevedra eta Elizondokoa, urriaren 13an.

Juan Alberto Migeltorena Indart eta **Ainara Ansa Txurruka**, Legasa eta Baraingoa, azaroaren 10ean.

HERRIKO ETXEROKO EDANTEGIA
CATE DE AMARIL
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

GOZOTEGIA OKINDEGIA
S.A.R.L. ETXHE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67

ETXHE
GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.
900 704704

FUNERARIA ZERBITZUAK

LESAKA-DONEZTEBE

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik
edozein herritara trasladoak

Tfnoa 948 637404.....LESAKA
Tfnoa 948 450475.....DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971.....BAZTAN



Jon APEZETXEA TAPIA

5. urteurrena (XII-3)

«Abenduaren 3an
gure lagun Jon munduan galdua»



Hire lagunak

AIZKORA

Ongi merezitako omenaldia jaso du Mindegia aizkolariak Donezteben

Txapelketetan berriz ere parte hartzeko aukera ez du baztertzeko

Mikel Mindegia aizkolari handiak ongi merezitako omenaldia jaso zuen Doneztebeko feria egunean. Emaztea lagun zuela, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren, Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gaztediaren Institutuaren eta Doneztebeko Udaren oroigarriak jaso zituen. Herriko dantzari batek aureskua eskaini zien Mindegia senar-emazteei. Mndegiak jendearen harrera eskertu zuen: *‘nire txapelei ez ezik, 36 urtez plazetan erakutsi dudana portarari egindako omenaldia dela uste dut’*.

Aizkora txapelketak erabat utzi zituela uste genuen, baina Mindegia erranzigunari erre-



AITOR AROTZENA

Doneztebeko dantzariak aureskua eskaini zien Mindegia senar-emazteei.

paratuz, urtebeteko atsedenaren ondotik berriz ere saio ofizialean parte hartzea

ez duela erabat bazterrean uzten. *‘Txapelketatik erretiratzen nintzela ez dut sekulan*

esan, aurten ez dutela parte hartuko baizik. Hori bete dut. Heldu den urtean ikusiko dugu’.

Euskal Herriko gazte mailako txapela Javier Mindegiarentzat

Beintza-Labaiego aizkolaria aisa nagusitu zen

Hasieratik bukaera-jaun eta jabe izan zen Javier Mindegia 17 urteko Beintza-Labaiengo aizkolaria, Doneztebeko feria egunean jokatutako Euskal Herriko gazte mailako txapelketan. Lehenbiziko enborretan Unai Aldape lemoarra hurbilean izan zuen, baina bere gorpuzkera eta indarra nagusitu zituen Mindegia. Bigarren postua bizkaitarrarentzat izan

zen, hirugarrena Jon Rekondo leitzarrarentzat eta laugarrena David Amillano altsasuararentzat. Bosgarren postua Ugaitz Mugertza mutrikuarrarentzat izan zen eta azken postua Eneko Larrion altsasuararentzat.

Javier Mindegia, Mikel Mindegiaren iloba da eta Euskal Herriko txapeldun berriak bere osabaren eskuetatik jaso zuen zapela. Erreleboa

hartzeko modu ezin hobea. Aitarekin entrenatzen duela gogoratuz, osaban ere eredu ona duela azpimarratu zuen Javierrek: *‘Osaba bezala ez naiz izanen, ez ni eta ez inor ere. Baina ejenploa hor dago eta ea segitzen dugun. Lehen mailakoekin aitzeko urte saila esperatu beharko dut, baina ongi entrenatuz gero horrek bere fruitua ematen du’*.



	45	45	54	54	45	45
1. MINDEGIA	1'15"	2'45"	5'39"	8'38"	10'40"	12'36"
2. ALDAPE	1'17"	2'58"	6'17"	10'20"	12'40"	15'23"
3. REKONDO	1'44"	4'17"	8'08"	11'38"	14'29"	17'24"
4. AMILLANO	1'44"	4'34"	8'45"	13'19"	16'52"	19'55"
5. MUGERTZA	2'23"	5'19"	9'44"	14'36"	18'26"	21'34"
6. LARRION	2'49"	5'45"	10'41"	15'29"	19'23"	22'50"

Nafarroa polemikarekin gailendu zitzaion Gipuzkoari

Nafarroak 2 eta 1 irabazi zion Gipuzkoari, Mindegiaren omenaldiaren ondotik egindako saioan. Lehen proban, Barberenak irabazi zion Arria V.ari. Erabaki eztabaidatua izan zen: jende aunitzek gipuzkoarrak ikusi zuen irabazle, baina epaileen erlojuek nafarrari eman zioten garaipena, 17 zentesimako aldearekin. Binaka egindako saioan, Nazabal eta Larretxeak bigarren puntua eman zioten Nafarroari. Hirunaka egindako azken saioa irabazi zuten Olasagasti, Pe agarikano eta Arria V. gipuzkoarrek. Dena den, txapela nafarren-tzat izan zen.

SOKATIRA

Beti Gaztek etxean jantzi du Nafarroako lehendabiziko txapela

680 kilotan aisa lortu zuen garaipena azaroaren 17ko finalean

Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak aisa irabazi zuen Nafarroako goma gaineko 680 kiloko txapela, azaroaren 17an Lesakan jokaturako saioan ez baitzuen izan inolako arazorik lehian ziren bertze lau taldeak mendeen hartzeko.

Beti Gaztek Areso izan du kontrariorik gogorrena azken urteetan, baina aresoarrak goma gainean aritzeari utzi eta lurrera pasatu dira. Honela, gauzak erraztu egin zaizkie Beti Gazteko mutilei. Aurtengo txapelketan, iaz aritu ez ziren bi talde ere aritu dira: Ezkabaondoa eta Berrioizar.

Beti Gaztek saioko tiraldi guziak bereganatu zituen eta arazorik gabe jantzi ahal izan zuen txapela. Aitzinetik gibelera, Karmelo Mitxele-



AITOR AROTZENA

Beti Gaztek ez zuen aparteko arazorik izan 680 kiloko Nafarroako txapelketan Lesakan irabazteko.

na, Bixente Igarzabal, Joxe Angel Mitxelena, Jexux Mari Telletxea, Iaki Igoa, Eloi Ordoki, Be ardo lantzi eta Joxe Angel Zubiriak osatu zuten goma gaineko

zortzikotea, Josu Irigoien prestatzailea eta Antonio Mujika botilleraren erranetara.

Bigarren posturako lehian Imotz gailendu zitzaion Txantreari. Az-

ken posturako ere borroka handia izan zuten Berrioizar eta Ezkabaondoa. Tiraldi bana irabazi ondotik, kitarakoa Ezkabaondoa irabazi zuen.

FLASH

Jose Mari Telletxea Irigoien

beratarrak Kirol Merituari Nafarroako Gobernua ematen dituen zilarrezko dominetako bat eskuratu du aurtan. Azken 25 urteetan Gure Txokoa eta Beratarra txirindula taldeetan egindako lana eskertzeko eman diote domina. Zorionak!

Abel Barriola final laurdenean

Leitzarra da eskualdeko ordezkari bakarra lehen mailako lau terdiko txapelketaren final laurdenean. Bergaran aisa irabazi zion Inaxio Errandoneari, 22-8, joku erakustaldia egin ondotik. Igande honetan Alustizaren kontra jokatzekoa zen Etxabarrin. Irabazi balu, abenduaren 9an jokatu luke finalerdia. Arerioa, Lasa III eta Capellan edo Go i Iren arteko norgehiagoka erabakiko da igande honetan. Zergatik ez abenduaren 23ko finalarekin amets egin? Bertzalde, Asier Olaiola goizuetarrak 16-22 galdu zuen Belokiren kontra Sorian.

TXIRRINDULARITZA

Ziklo-krosean lehen garaipenak eskuratu ditu Garro beratarrak

Frantziako Paben eta Bizkaiako Gordexolan irabazle

Mendi bizikleta erabat utzi gabe ziklo-krosean proba egitea erabaki du aurtan Juan Carlos Garro txirindulari beratarrak. Eta apostuak emaitza ona eman dio, nonbait, dagoeneko bi garaipen eskuratuak

baititu, bata Paben (Frantzia) eta bertzea azaroaren 11n Bizkaiako Gordexola herrian egindako estatu mailako proban. Gainera, proba akautzerakoan, Espainiako selekzionatzaileak Munduko Ko-

pako probetan parte hartzeko deitu zuen Garro.

Azaroaren 18an, berriaz, ziklo-krosean probarik ez zuela probetuz, mendi bizikletan aritu zen Garro. Lizarrako Irekiko proba entrenamendu gisara hartu



ARTXIBOKOA

Juan Carlos Garro ziklo-krosean ere bikain dabil.

zuen, baina garaipena aisa eskuratu zuen, Ro-

berto Lezaun liderra gibellean utziz.

AGENDA

egunez egun

g KONTZERTUAK

GOIZUETA

Azaroaren 24ean Lau Itzal, Asgarth eta Betagarri taldeak udal pilotalekuan, Gaztetxearen 10. urteurreneko ekitaldien barnean.

ELIZONDO

Azaroaren 18an Kantiruki taldea (Iparraldeko ahotsak) Arizkunenean, arratseko 8etan. 2001eko Folk Ametsetan Zikloaren barne.

BERA

Azaroaren 23an kontzertuak Beran. Arratseko 10etan Kematxe taldea Bidaxka ostatuan. 11etan Irats taldea Zizka ostatuan eta 12etan kontuz taldea Pui ostatuan.

g ERAKUSKETAK

LESACA

Azaroaren 20tik abenduaren 2ra Kepa Pikabea presoaren margo erakusketa Arrano elkartearen.

BERA

Azaroaren 30etik abenduaren 22ra Hector Urraren margoak ikusgai Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

g ZINEMA

LEITZA

Azaroaren 30ean 22.30etan "Gente Pez" filmea.
Abenduaren 1ean 19.30etan "Gente Pez" filmea.

AZKAIN

Azaroaren 30ean Zine arratsa Biltokian. "Usoa", "Auspo soina" eta "Bertzea" filme laburrak ikusgai.

g BERTSO-AFARIA

ARANO

Abenduaren 1ean San Roke elkartearen, Maddalen Lujanbio eta Andoni Ega a.

TELEBISTAKO TXOKOA



asteazkenero
arratseko 9,30etan
ortzegunetan
11etan, 13etan, 15,30etan

Lesakako ferlak
azaroaren 29an
arratseko 9etan



ETA BORTZIRIETAKO FERIAK, NOSKI

Lesakako Feriekin akautuko da aurtengo azoken denboraldia

Azken aleetan udazkeneko feria eta azoken inguruko saio berriak noiz eta nola izanen ziren aipatzen joan garenez, oraingoan azaroaren 28 eta 29an egingen diren Lesakako feriak izanen ditugu mintzagai.

Joseba Olagarai etxalartarraren eta Aitziber Almandoz aranztarraren laguntzarekin Bortzirietako feria hurbiletik ezagutzeko modua izanen dugu aurtengoa. Elkarriketak, saltzaileen eskaintzak, bisitarien iritziak eta irudi ikusgarrienak bilduko dituzte Josebak eta Aitziberrek, etxetik mugitu gabe, Bortzirietako ferien berri izateko modua eskeintzeko. Saio berri hau ortzegunetan izanen da, hilaren 29an, ilunabarreko albistegian.

ERREPIKAPENAK ETA HERRIZ HERRI

Saioen errepiikapenetan aldatuta izan dela jakinarazten dizuegu berriz ere. Orain, ikuslegoak hala eskatuta, goizeko 11etan eta eguerdiko 1etan egingen ziren errepiikapenak mantenduta, orain arte arratsaldeko 5etan egin dena arratsaldeko 3,30etan egingen da aurrerantz.

Bertzalde Herriz Herri saioak denboraldi berriari ekin dio dagoeneko. Orain asteazkenero, arratseko 9,30etan ikusi ahal izan duzue kontuz betetako saio hau. Hain zuzen, aste honetan Lesakako feriak gai nagusitzat izan dituen bezala, heldu den astean malerreka aldera joanen da herriz herri, hango berri emateko.

DISKAK



"Denek Dakite"

4 Itzal

OIHUKA

Etzakit taldeko Xabi Solano abeslariaren proiektu berriaren emaitza da 4 Itzal taldea. Punk-rockaren inguruko doinuak beteriko diskoa da "Denek dakite" izenekoak. Solanok eginiko doinuak borobiltzeko "eskarmentu handiko" musikariak elkartu ditu bere inguruan. Gitarra eta ahotsa Xabi Solanok jarri ditu; alboan beste hiru musikari izan ditu: Haritz Harreguy, Sen taldeko gidaria, Kashbadeko Haritz Beristain bateriajolea eta Koldo Sorrete Utikan eta Mugatik taldeetako baxu joleak. Xabier Solanoren abesbiak punk-rockaren ereduak dira, baina diskoak hamabi kantuen osagai ezberdinekin dardardekin. Baladaren samurtasuna rock indartsuaren kolpe latzarekin tartekatzen da. Solanok itzalean zituen konposizioei argia emateko sortu zuen proiektu hau.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Azaroaren 9tik 16rako prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 5.600 pta.

Zerri gizena
(95-100): 160 pta/k.

Zerramak:
98/100 pta./kiloa, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: Pta/kg. Kanakal
Extra 565
1.koa 545
2.koa 525
Urruxak: Pta/kg. Kanakal
Extra 575
1.koa 555
2.koa 535

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 36.000 eta idixkoak 29.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 36.000 eta idixkoak 34.000 Pta.
Zaldikoak: Pta/k
Sortuberriak: 510/520
Zaldi-behorrak: 330/340
Bildotsak: Pta/k
6-8 kilokoak: 1.225-1.275
8-10 kilokoak: 1.100-1.150

JAKIN BEHARREKOAK



Euroari buruzko galdemoduak

Europako zein herrialdeetan erabili ahal izanen da euroa?

Europar Batasuna osatzen duten 15 herrialdeetatik 11tan erabili ahal izanen da euroa: Alemania, Austria, Belgika, Finlandia, Holanda, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Portugal, Frantzia eta Espainia. 2001eko urtarrilaren 1ean Grezia Europako Moneta Batasunean sartu zen eta euroa bere egin zuen. Drakma txanponaren ordeztu urtarrilaren 1ean euroa erabiliko da Grezian ere. Drakma Europako txanponik zaharrena da 2.600 urteko historiarekin. Moneta

Alemania, Austria, Belgika, Holanda, Luxenburgo, Grezia, Italia, Portugal, Irlanda, Finlandia, Frantzia eta Espainia erabiliko da euroa.

bakarrean parte hartuko ez dutenak: Erresuma Batua, Danimarka eta Suedia izanen dira.

Fakturak euroetan edo pezetetan/liberetan eman behar ditugu?

Urtarrila arte enpresek peze-ta edo liberetan eman ahal izanen dituzte euren fakturak. Baina gomendagarriena da prezioaren ondoan euroetan

zenbat den ezartzea ohitutzen joateko. Urtarrilaren 1ean faktura guztiak euroetan egon behar dute baina nahi izanez gero bertze txanponetan eman daitezke prezioak azalpen gisa.

Euroaren etorrerarekin zer gertatuko da inbertsioen epeak akautzen badira?

Epea urtarrilaren 1a baino lehenago bukatzen bada saria peze-ta/liberetan jasoko dugu. Bertzela euroetan izanen da.



LIBURUAK



Zure berrien zain

Agurtzane Barrutia

Elkarlanean

Sei urtetik aitzin duten haurrei zuzentzen zaio "Zure berrien zain" liburua. Agurtzane Barrutiak narrazioa idazti du, Jose Belmontek idazlana irudikatzen duten marrazkiak egiteaz arduratu da. Elkarlanean argitaletxe izan da 63 orrialde-tako liburua plazaratu duena. 890 peze-ta/ 36 liberen truke erosi daiteke. Narrazioan Elxabete eta Martin neska-mutikoak dira ipuinaren protagonistak. Oso lagun onak dira baina Martinek bertze he-

rri batera joan beharko da bizitzera. Honekin batera elkarrekin eskolan eta kalean pasatzen zituzten ordu luzeak akautuko dira. Egoera gainditzeko eskutitzak bidaltzea erabakiko dute gertatzen zaiena bata bertzeari kontatzeko. Martinek eskola berrian Be atezagutu du eta bere lagun mina eginen da. Be atek Down sindromea duen mutiko alai eta jatorra da. Be atek eskutitzen bitartez Elixabeteren berri izanen du.

AGENDA egunez egun

9 ANTZERKIA

SARA

Abenduaren 2an Omordian, Xirristi Mirristi antzerki taldearen "Lamintegiko laminak" antzezlan ikusgai, arratsaldeko 4etatik aitzin.

BERA

Abenduaren 15ean haurrendako antzerkia Kultur Etxean, 17:00etan. "Alizia bitxikerien lurraldean". Jesusen Bihotza Ikastetxeak antolatua.

LESACA

Abenduaren 1ean Doike taldearen "Inperfektua izan nahi dut" Arrano elkartean, arratseko 8etan.

Abenduaren 2an Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek "Aupa Kintxo!" emanaldia 17:00etan udal pilotalekuan, Nikaraguaren alde.

9 KANTU BAZKARIA

AZKAIN

Abenduaren 2an Joseba Tapia trikitilariak kantu bazkaria alaituko du Kiroletako saski-baloi gelan. Baionako Etxepare lizeoaren alde antolatua da, zientzietarako material gastuen arintzeko, eguerdikio 13:00etan. (Sarrera: 80 Libera - 2.000 pta.).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra

Etxalar, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

Abenduaren 3tik 9ra

Bera (Apeztegia), Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Abenduaren 10etik 16ra

Etxalar, NARBARTe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizue-ta.

Abenduaren 17tik 23ra

Lesaka, Doneztebe, Irurita eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai Legia, 53 - 3. ☎ 696 753 366.

BERA. Pisua salgai Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 413

BERA. Pisua salgai San Esteban karrikan, trastero eta garajearekin. ☎ 626 097 128

BERA. Pisua salgai San Esteban karrikan. ☎ 948 630 196

DONOSTIA. Amara Berrin, 70m²ko apartamendu berriztatua salgai. 42 milioi. ☎ 625 708 901

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

SUNBILLA:

Azken 3 etxe elkar atxikiak

ITUREN:

Laister eginen diren 4 elkar atxikiak salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

BERA: Eztegaras Pas. lehenengo pisu bat salgai, 4 logela, egongela, sukalde, 2 komuna, ganbara, bi balkoi. Prezio interesgarria. ☎ 607 97 86 56

IGANTZI. Pisua, garajea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

Etxea edo baserria erosi edo errentan hartuko nuke. Bajera badu hobe. Zaharra bada berdin dio. ☎ 653 012 576

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

CAUTERETS. Eski estazioan 6 lagunendako pisua errentan ematen da. ☎ 00 33 559 419 711 (arratsaldeko 7etatik aitzin)

ELIZONDO. Santiago karrikan pisua errentan eman nahi da. 95m². Mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎ 948 452 199

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabilioia salgai, 55m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

LANA

301 Eskariak

Atzerriko bikote batek etxe batean lan egingo luke interno moduan, etxeko lanak egiten edo adinekoak zaintzen. Eskualde osoan. (Paperak badituzte) ☎ 678 890 970 • 620 254 332

Bera, Etxalar edo Lesakan haurrak zainduko nituzke. ☎ 605 750 966

2 emakumek lana bilatzen dute, goizeko 9etatik 4:30etara lan egin dezakete. ☎ 620 254 332

Adinekoak zaintzeko neska bat eskeintzen da. ☎ 677 742 749

Asteburuetan lan egiteko jangelako zerbitzaria eskeintzen da ☎ 948 625 422

LANA

302 Eskaintzak

IBARDIN. Ostatu batean egunero lan egiteko neska bat behar da. Frantsesa jakitea beharrezkoa. ☎ 687 950 372

IRUÑEA. Pasta-denda bateko obradorean lan egiteko neska bat behar da. ☎ 948 220 618

AINHOA ARBURUA Psikologo Klinikoa

Kolegiatu zenbakia 781

Antsietatea, depresioa, anorexia, bulimia, bikote arazoak etab.

948 630 258

LEITZA. Torrea Herriko Tabernan sukaldaria behar da. ☎ 948 610 909

MOTORRA

501 Salerosketak

BMW 520 inyeccion, 24v, ko-txea salgai. NA-AY. ☎ 677 028 024

Piaggio ZIP moto berria-salgai. 49cc. ☎ 948 450 624

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

ZX, Defender, Rover, Opel Frontera Sport, Astra GSI, Terrano II.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

BAZTAN MoToR

☎ 948 452 119 • IRURITA

Bigarren eskuko kotxe garbitzatutak.

R4, Fiesta XR2 inyecc., Suzuki Vitara SJ410, Xantia 2.1TD, Fiesta 1.4 3 ate, Orion 1600 gasolina...



elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

Peugeot 605 SRI salgai.
750.000 pezeta. Hagitz ego-
era onean. ☎ 948 630 280

Chrysler monobolumena
TD, 116cv eta 7 eserleku sal-
gai. Hagitz egoera onean.
NA-AS. ☎ 948 637 433

ANIMALIAK

601 Emateko

**Xakurkume politak opari-
tzeko.** Ama collie arrazakoa
da eta aita etxe xakurra da.
☎ 948 453 312

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Fox Terrier arrazako za-
kurkumeak salgai. 20.000
pezeta. ☎ 948 452 145

Bi mendi-behi euren pape-
rekin salgai. ☎ 948 510 277

Zerrama bat hiltzeko sal-
gai. ☎ 948 627 557

DENETARIK

702 Salerosketak

Burdinezko esne garrafa
zaharrak erosten ditut. 3000
pezeta. ☎ 626 532 452

Bizikleta estatikoa erosiko
nuke. ☎ 620 076 102

Negozioa uzten dugulako, 2
besotako **kafetera salgai**,
moliñilloa opari. **Kaja regis-
tradora** eurora egokitua eta
edariantzako, altzairu her-
doilgaitzeko, **bikamara hoz-
kailu salgai**. Guztia berria.
☎ 948 450 491

**Haritz Amerikar egur ido-
rra salgai**. 40-50 cmtan moz-
tua 15-20 Tn. ☎ 616 055 371
(eguerditan edo gauez)

Kaja registradora, euroe-
tara egokitua salgai. Prezio
ona. ☎ 948 580 939

Babarrunak (ilar gorriak
salgai. ☎ 948 610 704

2002ko telefono gida prestatzen ari gara

Partikularren telefonoak
eta merkataria eta
ofizialeenak

Zure datuak
zuzentzeko edo
publizitatea
kontratatzeko,
deitu
948 63 11 88
telefonora



HARREMANAK

801 Agurrak

Zorionak Eneko! Besarka-
da bero eta handi bat Eus-
kal Herriko Txoko honetatik.
Animo eta Jo Ta Ke irabazi
arte!

Mikel Irigoien Irazoki aza-
roaren 20an sortu zen Be-
ran. Ongi etorria eta zorio-
nak gurasoei.

ARROPA DENDA BERRIA

✓ MARKAKO ARROPAK

✓ OSAGARRIAK



**ABENDURAKO
ZABALIK**

AMEZTIA 7 • DONEZTEBE



LAURA ERASUN ELIZONDO
doneztebarrak 6 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak Xabier, aitaxo eta amaxoren partetik.



OLAIA OTXOTKOA
azaroaren 24ean urtea beteko du. Zorionak eta muxu handi bat attatto eta amaxoren partetik.



AMAIA TELLETXEA
elgorriarrak azaroaren 22an urteak bete ditu. Zorionak eta urte askotako zure lankideen partetik.



HODEI UNXION
beratarak abenduaren 14ean 5 urte beteko ditu. Zorionak Legasako familiaren partetik. Aupa Olaitzola anaiak!



ENEKO YARZAZ SANCHEZ
lesakarrak urtea bete du azaroaren 20an. Zorionak "Topetin", guraso, osaba-izebak, lehengusak eta amoren partetik.



BE AT MITXELENA SAGASTIBELZA
beratarak 5 urte beteko ditu azaroaren 24ean. Zorionak amaxi, Olatz eta Oierren partetik. Muxua.



MARTINA BALEZTENA ETA INANOL DE RUEDA
abenduaren 8an eta urtarrilaren 4ean urteak beteko dituzte. Muxu handi bat eta zorionak familiaren partetik, bereziki Andrearen partetik.



ENEKO ESPARZA CHUECA
5 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak Iratxe, Fermina, Luzio, Mabi eta gurasoen partetik.



ANE GURRUTXAGA ERRANDONEA
lesakarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 10ean. Aunitz urtez familiaren partetik.




INMACULADA ARTOLA AZPIROZ
leizarrak abenduaren 3an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.




MIKEL CASTILLO
Abenduaren 7an 2 urte beteko ditu. Zorionak Patxi, atta eta amaren partetik. Zein ona zaren lo zaudelarik!



OIHANE GOIENETXE IPARRAGIRRE
beratarak azaroaren 26an 8 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



Arantza eta Doneztebeko **NOELIA ETA ANEK**, abenduaren 25 eta 28an urteak beteko dute. Zorionak 2 printzesei eta 2 muxu handi.



IBAI ETXEBERRIA BURLADA
aranzarrak abenduaren 2an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Oihana eta familiaren partetik.



XUBAN ETA UXURI. Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean urteak beteko dituzte. Aunitz urtez familiaren partetik.



UNAI LOIARRE OTXANDORENAK
abenduaren 18an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat Leitzako familiaren partetik.



XABIER SANTAMARIA MITXELENAK
azaroaren 24ean 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez, familiaren partetik.



OLAIA OTXOTEKOA
azaroaren 24ean urtea beteko du. **ANATXIK ETA ALAZNEK** azaroaren 27an, 78 eta 17 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu bana familiaren partetik.



BE AT TXOPERENA MATXIKOTE
igantziarrak 10 urte beteko ditu abenduaren 8an. Aunitz urtez Oihana, ama eta attaren partetik.



XABIER ARRIOLA PEREZ
lesakarrak abenduaren 5ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Eskelak eta urtemugak

ttipi-ttapa

aldizkarian eta telebistan



948 63 11 88



G U T N T I T L E

I C H E


IZ - Z C N - T I G S - U N Z U E

Für r e s k r i m m e n t e n h i k s r i n t z z u t e n f i r k i u f n i k , E s n k
l i n z k t n t r s r a z u t n 1 7 5 n , T n t r l r c h , z l l z n r n t l t n s r r .

N F S N

N f r k z n l k u t k , s l s l k t l f n z n k h u m r k t u z , r t s n m t t l t z n u a n u n
z l t r h r t n h r z k u z z u r t u k G U T N T I I C H E t l .

7 7



G U T N T I I C H E t l k n t r k t l i k k t u l r u . n s l , z r ,
K r r s , M r z l l , S n r n , V l f r n e - l s s t n z t n . E t l s t r r k z l u k
t e v i l t , t z , F l t z s , L s k t N f r k r z h m t n r .

Z E I T Z U E E N , E T E Z I K E N , G U E T L E K T N T I E / E T
E I L T K I T I N G E H I G E I L T Z E N H I L U Z U .

L S T E Z L U K U G U T N T I Z T N .
I N E L I Z N N Z T N L L E S K .
G I Z T E G U Z I E N Z E I T Z U U E N
I N S T L Z I E T I I L G I L U M E N E N K I L U Z .

nts - l n k

Et rk zun st r tsu

In re z zu z- l t t n.

N f r r Kutx nts - l n m l t t tzu r t z n z zu s ur h n
rt n h ut t z zun t n ur t r z zun nt l uzt .

z z zu t r zun l ntz n n t n.

www.c n. s

NAFARROAKO  KUTXA